BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4505

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 8koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Acería de Álava, SAri Amurrion (Araba) altzairugintzako eta zabortegiko jarduerak egiteko emandako ingurumen-baimen bateratua aldatzeko, berrikusteko eta gauzatzeko dena.

Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez, Acería de Álava, SAri Amurrion (Araba) altzairugintzako eta zabortegiko jarduerak egiteko ingurumen-baimen bateratua eman zitzaion.

2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren hirugarren atalak hau xedatzen du:

«Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: D.2.3.1.f eta D.2.3.2.d (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); D.2.3.1.q, D.2.3.1.r eta D.2.3.2.f (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); D.2.3.2.a (EHZn ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa); D.1.5 eta D.2.4 (lurzorua babesteko baldintzak); D.2.6.1 (isuri atmosferikoen kontrola); D.1.10.9 eta D.2.6.6 (zabortegiari eta altzairutegiari dagokien ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); E.1 (mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); E.3.a (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); E.3.d (ustiapenari buruzko eskuliburua); E.3.h (larrialdi-kasuetarako materialen zerrenda); E.3.i (kubetak husteko protokoloa) eta E.3.z (suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Gainera, Ingurumen Sailburuordetzan bere instalazioetako zabortegia itxi eta zigilatzeko plan bat aurkeztu behar du, eta horren edukia Ebazpen honen D.1.7 eta D.1.8 ataletan eta indarrean den araudi sektorialean adierazitakora egokitu beharko da. Beharrezkoa izango da plan horretan ondorengoak sartzea: proposatutako zigilatzea burutzeko kalitate-kontrolerako berariazko plana, proiektuan aurreikusitako fase guztien kronograma xehatua, eta definitutako obra-unitate guztien aurrekontu banakatua, bai zigilatzerako, bai itxi ondorengo kontrol eta jarraipenerako programarako.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek egina.

Sei hilabeteko epea ezarri da goiko baldintza horiek guztiak betetzeko, jakinarazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik hasita, eta Ingurumen Sailburuordetzak ebazpena eman beharko du ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, haren bitartez, ingurumen-baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.»

2008ko abuztuaren 1ean, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen Acería de Álava, SAk 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren aurka.

2011ko apirilaren 8an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauari jarraikiz txatar-mota batzuk hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak xedatzen

dituen 2011ko martxoaren 31ko Kontseiluaren 333/2011 Erregelamendua (EB) argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

2012ko martxoaren 8an Batzordearen 2012ko otsailaren 28ko Erabakia –siderurgia-produkzioko teknologia erabilgarri onenak ezartzen dituena– argitaratu zen.

2012ko martxoaren 27an eta 2012ko maiatzaren 15ean, Acería de Álava, SAk 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren eraginkortasuna deklaratzeko eskatu zion ingurumen-organoari, eta, horretarako, hainbat agiri ere aurkeztu zituen. Agiri horiek bidaltzearekin batera, hauetarako baimena eskatu zuen Acería de Álava, SAk: batetik, altzairu herdoilgaitzezko hondakin ferrikoak balorizatzeko altzairugintzako labean eta, bestetik, instalazioan bertan eta taldeak Laudion eta Amurrion dituen instalazioetan sortutako zenbait hondakin autokudeatzeko. Horrez gain, oxiebaketako instalazio berriko foku berri bati alta ematea eskatu zuen, «altzairugintzako iragazkia» fokuaren isurpen atmosferikoen kontzentrazioa zehazteko proposatutako metodologia aurkeztu zuen eta, azkenik, zarataren muga berrikustea eskatu zuten, bai eta ebaluazio-azterketa bat egitea proposatu ere.

2012ko azaroaren 7an, Ingurumen Sailburuordetzari atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskaritza-bisita bat egin zuten Acería de Álava, SAren Amurrioko (Araba) instalazioetan, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko, eta AAI00112/1 zenbakidun akta egin zuten, bisitaren nondik norakoak jasota.

2013ko maiatzaren 27an, Acería de Álava, SAk 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duen agindua eman zuen ingurumen-organoak. Agindu horretan, partzialki onartzen da gora jotzeko errekurtsoa, eta ebazpenaren honako atal hauek aldatu egiten dira: aurrekariak, bigarrena, D.1.1, D.1.3.4, D.1.4, D.1.10.4, D.1.10.8, D.2.1.2, D.2.1.3, D.2.2.3, D.2.3.2, D.2.6.2, D.2.6.4, E.3 azpiatalak eta II. eranskina.

2013ko ekainaren 7an Ingurumen Sailburuordetzako zerbitzu teknikoek ikuskatze-bisita egin zuten Acería de Álava, SAk Amurrion (Araba) dituen instalazioetan, indarreko legedia betetzen dute egiaztatzeko, zehazki 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen bateratuaren baldintzak. Halaber, AAI00112/1S zenbakidun akta ere egin zuten, bisitaren nondik norakoak jasota.

2013ko maiatzaren 15ean eta 2013ko uztailaren 2an, Acería de Álava, SAk aldaketa-formulario bat igorri zuen, hauek instalatu dituela jakinarazteko: azala kentzeko makina bat, gainberotze-labe berria blooming-nabean eta bi hozte-dorre berri. Landare-barrera bat eraiki duela ere jakinarazi zuen.

2014ko apirilaren 1ean, Acería de Álava, SAk idazki bat igorri zuen, proposatutako aldaketa instalazioaren funtsezko aldaketatzat jotzen ez dela jakinarazteko.

2014ko ekainaren 12an, 2014ko urriaren 17an eta 2016ko otsailaren 26an, Acería de Álava, SAk agiri gehigarriak bidali zituen 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenean ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatzearren. Agiri horiek bidaltzearekin batera, blooming-nabeko gainberotze-labe berriari lotutako foku berri bati alta emateko eskatu zuen, egungo PIT labeen nabea handitu dutela –forjaketa-ekoizpenaren ahalmena handitzeko– jakinarazi zuen, eta 12. fokuaren baja eskatu zuen –kanporako irteera kentzen delako–.

2014ko abenduaren 22an, Acería de Álava, SAk aldaketa-formulario bat igorri zuen, zera jakinarazteko: zepen nabe bat eraiki duela zepen aurretiko hozte-, biltegiratze- eta tratamendu-eragiketetarako gordetzeko; hartara, zepak manipulatzeko eta tratatzeko eragiketei lotutako zehaztugabeko isuriak gutxitzeko.

2015eko uztailaren 3an, Acería de Álava, SAk idazki bat igorri zuen, proposatutako aldaketa instalazioaren funtsezko aldaketatzat jotzen ez dela jakinarazteko.

2015eko maiatzaren 5ean Ingurumen Sailburuordetzako zerbitzu teknikoek beste ikuskatze-bisita egin zuten Acería de Álava, SAk Amurrion (Araba) dituen instalazioetan, indarreko legedia betetzen dute egiaztatzeko, zehazki 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen bateratuaren baldintzak. Halaber, AAI00112/2S zenbakidun akta ere egin zuten, bisitaren nondik norakoak jasota.

2013ko ekainaren 12an, 5/2013 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (5/2013 Legea, ekainaren 11koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena).

2013ko urriaren 19an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, industriako isurpenen Erregelamendua onartzen duena eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legea (uztailaren 1eko 16/2002) garatzen duena.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan, ingurumen-baimen bateratua berrikusteko prozedura ezartzen da teknologia erabilgarri onenei buruzko ondoriok argitaratzen diren kasurako.

2014ko urtarrilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abenduaren 23ko 468/2013 Dekretua, zeinaren bidez aldi baterako eten baitzen 183/2012 Dekretua (183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzekoa eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzekoa).

2014ko abenduaren 18an, Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua onartu zen, zeinaren bidez 2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztu zen; onartu zen, orobat, Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaraua (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorriz.

2015eko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Plana onartu zen.

2015eko martxoaren 13an 180/2015 Errege Dekretua (Hondakinen lekualdaketa Estatuko lurraldean zeharreko hondakin-garraioa arautzekoa) onartu zen.

2015eko ekainaren 25ean Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko Legea (ekainaren 25eko 4/2015) onartu zen.

2015eko azaroaren 9an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Acería de Álava, SAri: alderaketa bat, hau da, ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenak aintzat hartuz gero, instalazioaren funtzionamendua nolakoa litzatekeen adieraztea, lurzoruei buruzko informazio eguneratua eta oinarrizko txostena egiteko aurreikuspena.

2015eko azaroaren 27an Acería de Álava, SAk ingurumen-baimen bateratua berrikusteko eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen.

2015eko abenduaren 14an, Ingurumeneko sailburuordearen Ebazpena argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean. Horren arabera, Acería de Álava, SAren ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena 30 egun baliodunez jendaurrean jarri

zen; hartara, nahi beste alegazio aurkeztu ahal izateko. Ingurumen-baimen bateratua jendaurrean jartzeko izapideak amaitutakoan, alegaziorik ez dela aurkeztu egiaztatu da.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Amurrioko Udalari eta Osasun Sailari 2016ko urtarrilaren 28an.

2016ko otsailaren 3an eta 2016ko martxoaren 3an, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Amurrioko Udalak txostena egin zuten, eta espedientean jaso da txosten horien emaitza.

Acería de Álava, SAk aurkeztutako agiriak aztertuta eta Amurrioko (Araba) instalazioetara egindako ikuskapen-bisitaren ondoren, ondorioztatu beharra dago enpresak, oro har, bete dituela ingurumen-baimen bateratua eraginkorra izan zedin 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren hirugarren atalean adierazitako baldintzak (2008ko uztailaren 2ko Ebazpena, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko maiatzaren 27ko Agindu bidez aldatua). Dena dela, antzemandako gabeziak egokitu direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu sustatzaileak.

Acería de Álava, SAk zenbait agiri aurkeztu zituen zenbait aldaketa jakinarazteko (altzairu herdoilgaitzezko hondakin ferrikoak balorizatzea, instalazioan bertan eta taldeak Laudion eta Amurrion dituen instalazioetan sortutako zenbait hondakin autokudeatzea, eta PIT labeen egungo nabea handitzea –forjaketa-ekoizpenaren ahalmena handitu ahal izateko–), eta agiri horien analisitik zera ondorioztatzen da:

1.– Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, proiektatutako aldaketek ez dute eragin kaltegarririk edo garrantzitsurik izango segurtasunean, pertsonen osasunean edo ingurumenean. Horregatik, funtsezko aldaketak ez direla jo da, Lege horretan xedatutakoaren ondorioetarako.

2.– Era berean, proiektatutako aldaketak ez daude sartuta ez Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean ez ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eta II. eranskinetan. Horregatik, bada, ez da hizpide ditugun aldaketen gaineko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedurarik egingo.

Ingurumen-baimen bateratuaren izapideak egitean egiaztatu dugu, halaber, enpresan dauden instalazioetan ezberdintasunak daudela 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenean jasotakoen aldean.

Siderurgia-produkzioko teknologia erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituen dokumentuak altzairugintzaren sektoreko arku elektrikoko labeetarako isurpenaren muga-balioak ezartzen dituenez, ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena egin behar da, baimena ondorio horietara egokitzeko.

Ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena izapidetzeko aldian beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu dutenez, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bigarren atalaren D.2.1 eta D.2.6 azpiatalak aldatu behar dira, aipatutako ondorioetara egokitzeko.

Acería de Álava, SAren jarduerak substantzia arriskutsu nabarmenak igortzea dakar, lurzorua eta lurpeko urak kutsatzeko aukera aintzat hartuta; beraz, sei hilabeteko epean lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarrizko txosten bat egitea eska daiteke; hartara, alderaketa kuantitatiboa egin ahal izango da jarduera behin betiko amaitzean duenarekin.

Ingurumen-baimen bateratua aldatzeari dagokionez, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa, eta 2008ko

uztailaren 2ko Ebazpenaren D.2.1, D.2.2, D.2.3 eta D.2.4 zenbakietan ezarritakoa kontuan hartuz, baimen hori egokitu egin behar da airearen kalitatearen babesari, isurketarako baldintzei zein hondakinen sorrerari buruzko atalen testua eguneratzeko, bai eta instalazioen sortutako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen zerrenda eguneratzeko, lurzoruaren babesari buruzko atala eguneratzeko eta ontziak merkaturatzeari buruzko atal berri bat txertatzeko ere.

Ingurumen-baimen bateratua izapidetzeko prozesuan, Acería de Álava, SAk altzairu herdoilgaitzezko hondakin ferrikoak balorizatzeko jarduerari alta emateko eta zenbait hondakin ez-arriskutsu autokudeatzeko behar den informazioa aurkeztu du; beraz, beste atal bat sartu behar da, aipatu hondakinak hartzeko, ikuskatzeko eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak barne hartuko dituena.

Nolanahi ere, EHZ 160199 kodea duen hondakina ibilgailuak beren bizitza baliagarriaren amaieran desegiteko instalazioetan sartzen diren hondakinen kodeei dagokie; beraz, ez da EHZ kode hori hondakin onargarrien zerrendan sartu behar.

EHZ 120199, 160214 eta 170411 kodeak dituzten hondakinak hondakin orokorrei eta ispilu-sarrera duten hondakinei dagozkie, eta Acería de Álava, SAk ez ditu EHZ kode horiekin kudeatu beharreko berariazko hondakinak identifikatu; beraz, ez dira baimenean kudeatzekoak diren onargarrien artean sartu behar.

Halaber, aurretik aipatutako aldaketen ostean, Acería de Álava, SAri epe nahikoa eman behar zaio ingurumen-baimen bateratuaren eremuan jasotako ingurumena zaintzeko programa egunera dezan, aldaketa horiei egokiturik.

Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak hondakinak zabortegian ezabatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko araudi-esparrua finkatzen du, eta aurreko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren araberako hondakinak zabortegietan biltegiratuta kudeatzeko autonomia-erkidegoko araudia egokitzen du, eta II. eranskinean hondakinak zabortegietan onartzeko prozedura eta irizpideak zehazten ditu; beraz, 2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren bigarren atalaren D.1.1 azpiatala eguneratu behar da.

Ingurumen-organo honek uste du gehienez ere sei hilabeteko epean egiaztatu behar dela zabortegia zigilatzeko lanen hasiera, bai eta zigilatze-proiektua indarrean den araudiari egokitzen zaiola ere; beraz, sartu behar da betekizun hori baimenean.

Acería de Álava, SAri emandako ingurumen-baimen bateratuan zaraten arloan bete beharreko muga-balioak eta haiek kontrolatzeko prozedura zehaztuta daude, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa betez.

Horrez gain, ingurumen-baimen bateratuak xedatzen du, halaber, neurri babesle eta zuzentzaileak, baita ingurumena zaintzeko programa ere, aldatu ahal izango direla araudi berria indarrean jartzean, betiere, esku hartzen duten sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea aholkatzen badu, edo sustatzaileak horrela eskatzen badu ingurumena zaintzeko programak lortutako emaitzak ikusita.

Acería de Álava, SAk ingurumen-organoari jakinarazi dio, zaraten arloan ezarritako muga-balioak betetzeko neurriak ezarri baditu ere, balio horiek bete ezinean daudela, eta ez dagoela haiek bete ahal izateko beste hobekuntza teknologikorik eskuragarri.

Hori gorabehera, organo honetan Acería de Álava, SAri dagokion ingurumen-baimen bateratuaren espedientean jasota dagoen dokumentazioan jardueran egindako hainbat neurketa daude, eta neurketok Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan finkatutako balioak betetzea egiaztatzen dute.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 7. artikuluan xedatuta kontuan hartuta, isurketaren muga-balioak zehazteko 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bigarren atalaren D.2.5 eta D.2.6.4 atalak aldatu behar ditugu, hori guztia dagokion udal-agintaritzak bere garaian egiten duen zonakatzeak dakartzan ondorioak alde batera utzi gabe.

Ekainaren 11ko 5/2013 Legearen 19. artikuluak uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikulua ezabatzen du (ingurumen-baimen bateratua berritzeari buruzkoa); hori dela eta, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren laugarren atala ezabatu behar da.

Aipatutako ekainaren 11ko 5/2013 Legearen lehen artikuluaren 20. zenbakia kontuan hartuta, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bosgarren atala aldatu behar da (ingurumen-baimen bateratua aldatzeko kasuei buruzkoa).

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak 13. artikuluan xedatzen du uztailaren 1eko 16/2002 Legearen eraginpeko enpresek jarduera aldi baterako uzteko aukera dutela; hori aintzat hartuta, berariazko atal bat erantsi behar da utzialdiak dirauen denboran ingurumen-baimen bateratua betetzen dutela bermatzeko baldintzak ezartzearren.

Aipatutako abenduaren 23ko 468/2013 Dekretuak aldi baterako eteten du I. eranskinean jasotako prozedurak IKS-eeM tresnaren bitartez bakarrik izapidetzea. Prozedura horien artean ingurumena zaintzeko programaren igorpena dago. Hori dela eta, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bigarren atalaren D.2.6.5 azpiatala aldatu behar da.

Acería de Álava, SAri emandako ingurumen-baimen bateratua aldatu behar da, adierazitako aldaketak txertatu ahal izateko.

Ingurumen-organo honek ebazpen hau emateko eskumena du, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean (otsailaren 27ko 3/1998) eta apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuan (Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) aurreikusitakoari jarraikiz.

Eta honako arau hauek guztiak aztertu ondoren: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea, ekainaren 11ko 5/2013 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea, eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, Industriako isurpenen Erregelamendua onartzen duena eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikazio orokorreko gainerako arauak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Acería de Álava, SAk sustatutako aldaketak funtsezkoak ez diren aldaketatzat jotzea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean xedatutakoaren ondorioetarako. Hauek dira aldaketa-eskaerak: altzairu herdoilgaitzezko hondakin ferrikoak balorizatzea, instalazioan bertan eta taldeak Laudion eta Amurrion dituen instalazioetan sortutako zenbait hondakin autokudeatzea, eta PIT labeen egungo nabea handitzea (forjaketa-ekoizpenaren ahalmena handitu ahal izateko). Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren

27ko 3/1998 Lege Orokorrean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedurari aplikatu beharreko araubide juridikoari buruz adierazitakoari dagokionez, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean adierazitakoari dagokionez, ez zaie ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik egin behar aldaketoi.

Bigarrena.– Acería de Álava, SAri 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen bateratua aldatu eta berrikustea, baimenaren baldintzak Batzordearen 2012ko otsailaren 28ko Erabakira egokitzeko. Erabaki horren bidez siderurgia-produkzioko teknologia erabilgarri onenak ezartzen dira. Horrenbestez, 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren eta 2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren lehen, bigarren, laugarren, seigarren eta zazpigarren atalak honela gelditukо dira idatzita:

«Lehena.– Acería de Álava, SAri –helbide soziala Amurrioko (Araba) Saratxo auzoko z./g.an du eta A-01010958 IFKa du– ingurumen-baimen bateratua ematea, Amurrion altzairugintzako eta zabortegiko jarduerak egiteko, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Fabrikari dagokionez, jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.2 kategorian sartuta dago, «Galdatzeko edo altzairu gordinak ekoizteko instalazioak (galdatze primario edo sekundarioa), galdatze jarraituko instalazioak barne, orduko 2,5 tonako ahalmenekoak»; eta 2.3.a kategorian, «Metal ferrosoak eraldatzeko, beroan ijezteko instalazioak, orduko 20 tona altzairu gordin ekoizteko ahalmenekoak»; eta zabortegiari dagokionez, jarduera 5.4. kategorian sartuta dago, «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gorako ahalmena dutenak, hondakin geldoen zabortegiak izan ezik».

Acería de Álava, SA enpresa Saratxo industrialdeko z./g.an dago, Grupo Tubacex-en lursailaren barruan eta Nerbioi ibaiaren ibilguak mugatuta, Amurrion (Araba). Lursailaren azalera, guztira, 99.451 m²-koa da.

Zabortegia instalazioen inguruan dago, zehazki Saratxoko administrazio-batzordearen lursailetan. Kokapenaren UTMK koordenatuak hauek dira: X: 499.720 eta Y: 4.763.980. Amurrioko hirigunetik 3 km hegoaldera dago, eta Aceralava plantatik 0,5 km hegoaldera. Zabortegiaren lursailek okupatzen duten azalera 72.400 m²-koa da guztira, eta horietatik 33.400 m² isuri-ontziaren azalerarenak dira.

Enpresaren jarduera nagusia txatarrak erabiliz altzairua lortzea da, arku elektrikoko labe batean galdatu, ijeztu eta beste prozesu osagarri batzuen bidez. Instalazioaren ekoizte-ahalmena urtean 94.039 tona totxo erabilgarri ingurukoa da.

Lehengaia (txatarra) arku elektrikoko labean sartzen da. 100 t-ko edukiera eta 56.000 KVA-ko potentzia ditu, eta 1.600 ºC-ko tenperaturak har ditzake.

Hoztea uraren bidez egiten da zirkuitu itxian, eta uraren tenperatura muga jakin batzuetan izateko hozteko dorreak daude.

Zepak kentzeko prozesu baten ostean, galda gas naturalarekin aurreberotutako aldatzeko zali batean isurtzen da.

Jarraian fintzea gertatzen da 60 t-ko edukierako AOD bihurgailuan, eta zepak kendu ondoren, galda lingote-ontzietara aldatzeko zalian isurtzen da.

Desmoldekatu ondoren, lingoteak ijezteko labeetara (PIT labeak) eramaten dira, bakoitza 16 lingoteko edukierakoa. Eta ijeztu egiten da.

Azkenik, lingoteak 2.000 t-ko prentsa hidrauliko batean forjatu, 15 t-ko edukierako kanpai higikorreko labe batean tratamendu termikoa egin, akabatu, eta bidali egiten da.

Arku elektrikoko labean xurgapena dago, galdatzean sortutako gas eta partikula guztiak xurgatzeko zirkuituaren amaieran dagoen mahuka-iragazkietan iragazteko.

AOD bihurgailuan mahuka-iragazkiei konektatutako kanpaiaren bidez xurgatzeko sistema bat dago.

Altzairua lortzeko prozesuan sortutako hondakin-uren artean lingoteak hozteko urak daude, isurketa-puntu baten bidez Nerbioi ibaira isurtzen direnak, dekantazio-putzu batetik igaro ostean.

Halaber, ur sanitarioak sortzen dira instalazioko aldageletan eta komunetan, eta industria-urekin batera isurtzen dira hobi septikotik igaro ostean.

Instalazioan sortutako euri-urak Nerbioi ibaira isurtzen dira zuzenean, ez dutelako kutsadurarik arrastatzen.

Bestetik, zabortegian sortzen diren lixibiatuak Nerbioi ibaiaren adar batean isurtzen dira, dekantazio-putzutik igaro eta CO_2-arekin neutralizatu ostean.

Proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onenak izan daitezkeen ondorengo neurriak ditu: gasak biltzeko eraginkortasuna, alboko kanpaiaren eta Canopy bidez; mahuka-iragazkien bidez arazteko sistema bikoitza; hondakinak sortzea minimizatzea, zepa beltza balorizatuz, altzairutegiko zati metalikoa eta hautsak berreskuratuz; uretara isurtzea minimizatzea, hozteko sistema itxi bidez.

Batzordearen 2012ko otsailaren 28ko Erabakian adierazitako aplikazio orokorreko teknologia erabilgarri onenak ditu instalazioak. Aipatutako erabakiaren bidez produkzio siderurgikoko teknologia erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-isuriei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorriz.

Gainera, arku elektrikoko labeetan altzairua fabrikatzeko prozesuetan aplikatu beharreko teknologia erabilgarri onenak ere baditu instalazioak Batzordearen 2012ko otsailaren 28ko Erabaki horren 1.7 atalean adierazitako kutsatzaileen isuriak murrizteko.»

«Bigarrena.– Acería de Álava, SAk Amurrion (Araba) sustatutako altzairugintzako eta zabortegiko jarduera ustiatzeko baldintza eta betekizun hauek ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko da, 6.010.120 euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtean behin eguneratu ahal izango da; aurreko 12 hilabeteetako kontsumorako prezioen indizearen (KPI) arabera areagotu edo egindako gastuen arabera murriztu ahal izango da.

Acería de Álava, SAk erantzukizun zibileko asegurua eguneratu izanaren ziurtagiria igorri behar dio urtero Ingurumen Organoari, eta polizan edozein aldaketa gertatu bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio. Era berean, kontratatutako aseguru berri horren baldintza orokor, berezi eta espezifikoen kopia ere igorri beharko dio organo horri.

B) Berrehun eta lau mila hirurehun eta berrogeita lau euroko eta hamabi zentimoko (204.344,12) fidantza jartzea, hondakinak zabortegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14. artikuluari jarraituz.

Fidantzaren zenbatekoa eguneratzeko, finantzen azterketa aurkeztu beharko da hiru hileko epean, eta, agiri horretan adierazi beharko dira A puntuan (erantzukizun zibileko asegurua) ezarritako bermeetatik eratorritako gastuak, itxieraren ondorengo 30 urteko epean egin beharko diren mantentze-lanetarako zenbatetsitako kostuak, eta baimena honetako babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa betetzeko kostu guztiak. Partiden eta urteen arabera banakatuko dira gastuak aipatu finantzen azterketan.

Aurrerantzean, urtean behin eguneratuko da finantzen azterketa, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko da.

Gainera, azterketa egiteko, finantzen azterketa egiteko irizpideei buruzko argibide teknikoetan zehaztutako jarraibideak jarraitu beharko dira, ingurumen-organoak zehaztutakoak.

Aipatu finantzen azterketa oinarri hartuta, beste fidantza bat jarriko da, eta horren zenbatekoa aipatu azterketan proposatu beharko da. Ingurumen-organoak berretsiko du fidantzaren behin betiko zenbatekoa.

Fidantza horren zenbatekoa zabortegia ustiatu, zigilatu eta ixteko, eta itxi ondoren 30 urtean mantentze-lanak egiteko eta lixibiatuak kudeatzeko kostuen arabera zehaztuko da. Fidantzaren funtzioa da jarduera uzteagatik sor litezkeen betebehar guztiengatik Administrazioaren aurrean erantzutea.

Fidantzaren zenbatekoa urtean behin eguneratu beharko da; aurreko 12 hilabeteetako kontsumorako prezioen indizearen (KPI) arabera areagotu edo egindako gastuen arabera murriztu ahal izango da.

C) Acería de Álava, SAk Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako edozein daturen aldaketen berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira:

D.1.– Zabortegiaren jardunerako baldintza orokorrak.

Ingurumena kudeatzeko pertsona arduradun bat egongo da, eta Ingurumen Sailburuordetzari horri buruzko datu hauek jakinaraziko zaizkio: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa.

D.1.1.– Hondakinak hartu eta ikuskatzeko baldintzak eta kontrolak.

Hondakinak zabortegian utzi ahal izango dira deuseztatu daitezen (D5 kudeaketa-eragiketa), baldin eta aurretiazko tratamendua jaso badute edo horiek balorizatzea teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ondorioz, zabortegira iritsi eta baloriza daitezkeen hondakinak bereizi eta dagokien banakako edukiontzietan gorde behar dira, helburu horretarako balorizatzeko gune baimendura eraman arte. Horretarako, gaur egungo egoera kontuan izanda, 49/2009 Dekretuaren II. eranskinean zehaztutakoarekin bat, baloriza daitezkeen hondakinak hauek dira: papera eta kartoia, metalak, obra-hondakinak, beira, zura,

plastikozko eta metalezko ontziak, 1.400 mm baino kanpo-diametro txikiagoa duten erabiltzen ez diren pneumatikoak, bizikletenak izan ezik. Zerrenda handitu egingo da, hondakin berriak balorizatzeko kudeatzaile baimenduak sortzen diren neurrian.

Zabortegian deuseztatu daitezen onartutako hondakinak, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendaren arabera sailkatutakoak, Ebazpen honen I. eranskinean adierazitakoak dira.

«99 amaiera» duten hondakinetarako, Errege Dekretuaren araberako oinarrizko karakterizazioa aurkeztuko da; aldiz, ispilu-sarrera duten hondakinetarako, oinarrizko karakterizazioaz gain, hondakin ez-arriskutsutzat sailkatuko duen arriskugarritasunaren karakterizazioa aurkeztuko da.

Ondorengo baldintzak dituzten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko:

a) 50 gradu zentigradutik gorako hondakinak.

b) % 65eko hezetasunetik gorako hondakinak.

Batzordeak 2002ko abenduaren 19an hartutako Erabakian hondakin ez-arriskutsuen zabortegietan hondakinak onartzeko zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte onartutako hondakinek –Erabaki horren bidez ezarri ziren zabortegietan hondakinak onartzeko hondakin horiek bete behar dituzten irizpideak eta prozedurak–, hondakinak isurtzeari buruzko 1999/31/EEE Zuzentarauko 16. artikuluari eta II. eranskinari eta hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraituz, betik bat bigarren eranskinean zehaztutakoan.

Nolanahi ere, hondakinak onartu ahal izateko, lixibiatze-saiakuntzak egin beharko dira, UNE-EN 12457-4 arauaren arabera «Hondakinak karakterizatzea. Lixibiatzea. Hondakin pikortsuak eta lohiak lixibiatzeko adostasun-saiakuntza. 4. zatia: 10 l/kg-ko likido/solido erlazioa duen etapa baten lotekako saiakuntza, 10 mm-tik beherako partikula-tamaina duten materialetarako (tamaina-txikitzea izan edo ez)».

Parametro jakin batzuetarako ezarritako mugak gainditzen badira, perkolazio-saiakuntzak onartzeko aukera izango da, Holandako NEN 7343 arauaren arabera. Nolanahi ere, saiakuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak horretarako zehaztutako jarraibideei jarraikiz egin beharko dira.

Acería de Álava, SAk datu-base digital bat edukiko du, oinarrizko karakterizazioaren emaitzekin eta adostasun-proben emaitzekin, bai eta zabortegia itxi arteko in situ egiaztapeneko gertakarien erregistro bat ere. Ingurumen-zaintzako programarekin batera, datu-base horren kopia bat igorriko da urtero.

Zabortegiak perimetro-itxitura bat izan beharko du, ustiategiaz kanpoko langileak sartzea saihesteko.

Acería de Álava, SAk isuritako hondakinen edo balorizatzeko gunera bidalitako hondakin baimenduen laburpena igorri beharko du urtero ingurumen-organora formatu elektronikoan, hauek adieraziz:

– Hondakinaren sailkapena, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendaren arabera.

– Hondakinaren kopurua (tonatan).

– Hondakinaren sortzailea.

– Helmugako hondakinen kudeatzailea.

Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko da.

D.1.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

Ahal den neurrian, partikula solidoen eta hautsaren isuriak sortzea saihestuko da ibilgailuen sarrera-irteeretan, zamalanetan eta hondakinak hedatzean.

Hondakin organiko biodegradagarriak onartzen direla-eta gasak sortzen badira, Acería de Álava, SAk gas horiek atzeman eta tratatzeko sistema bat instalatu beharko du. Sistema hori, bada, Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaio aurrez, onar dezan.

D.1.3.– Isurketak egiteko baldintzak.

D.1.3.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Zabortegia.

Jarduera-taldea: Bestelakoak.

Mota-taldea-EJSN: 4/-19/-00.00.

Isurpen-puntua	Hondakinuren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-gunearen UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Zabortegiko lixibiatuak	Nerbioi ibaiaren ibaiadarra	Ibaizabal	I	X: 499.621 Y: 4.775.042

D.1.3.2.− Gehienez isuri daitezkeen emariak eta bolumenak.

1. isuria: Zabortegiko lixibiatuak.

Orduko puntako emaria	*40 m^3*
Eguneko gehieneko bolumena	*55 m^3*
Urteko gehieneko bolumena	*20.000 m^3*

D.1.3.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	6,5 - 9,5
Solido esekiak	< 80 mg/l
OEK	< 160 mg/l
Amonioa	< 15 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Aluminioa	< 1 mg/l
Kobrea	< 0,2 mg/l
Zinka	< 3 mg/l
Kromoa	< 2 mg/l
Artsenikoa	< 0,5 mg/l
Kadmioa	< 0,1 mg/l
Merkurioa	< 0,05 mg/l
Beruna	< 0,2 mg/l
Burdina	< 2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, isurpenaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzien isurketarik onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

D.1.3.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

- Dekantazio- eta neutralizazio-putzua CO_2-rekin.
- Isuria kontrolatzeko kutxatila.

Gerora agertuko balitz orain hartu ditugun neurri konpontzaile hauek ez direla nahikoak, arazteko instalazioetan egin beharreko aldaketa guztiak bere gain hartu beharko ditu titularrak, bera denez baimena emateko baldintzak betetzearen erantzule, baimendutako ezaugarrien araberakoa izan dadin isuria. Aurretik, hartuko dituen neurriak Uren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio eta, behar bada, baimena bera ere aldatu beharko du.

Aurrerago, Nerbioi ibaiaren saneamendurako kolektore orokor bat jarriko balitz inguruan, horretara konektatu beharko lirateke zabortegiko lixibiatuak, horretarako bideragarritasun teknikoa dagoenean, eta eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko zaio idatziz.

Aurkeztutako dokumentuekin bat etorriz, kontrol-kutxeta bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio. Kasu honetan, efluentea kontrolatzeko honako elementuak izango dituzte:

– Lixibiatu gordinetarako emari-neurgailuak, tratamendu-sistemara sartu baino lehen.

– Ur araztuen isurketarako emari-neurgailua.

– Ph-neurgailua eta tratatutako uren azken kontrolerako eroankortasun-neurgailua, alarma-sistemekin, neurketen toki-adierazpenarekin eta biltegiratze jarraituarekin euskarri informatikoan.»

D.1.3.5.– Isurketa-kanona.

Uraren Legearen testu bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurketa-kanonari dagokion zenbatekoa:

(IK): Isurketa-kanona = V x Pu.

Pu = Pb x Cm.

Cm = C2 x C3 x C4.

Non:

V = Baimendutako isurketaren bolumena (m^3 urtean).

Pu = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

Pb = Oinarrizkoa prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Cm = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C4= Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isuria: lixibiatua/geldoen zabortegia.

V: Bolumena:	*V = 20.000 m^3/ urte*
P_b: Hondakin-ura: Industriako ura	*P_b = 0,04207 €/m^3*
C_2: Substantzia arriskutsuekin	*C_2 = 1,28*
C_3: Tratamendu egokia	*C_3 = 0,5*
C_4: Kategoria-gunea: I	*C_4 = 1,25*

Cm = 1,28 X 0,5 x 1,25 = 0,80000.

Pu = 0,04207 x 0,80000 = 0,03366 euro/ m^3.

Isurketa-kanona = 20.000 X 0,03366 = 673,20 euro/urte.

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo Isurketen Kontrol Kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza bukatu ondoren, organo eskudunak urte horri dagokion likidazioaren berri emango dio instalazioaren titularrari.

Isurketen Kontrol Kanona autonomia erkidegoek edo tokiko korporazioek saneamendu- eta arazketa-lanak finantzatzeko ezar ditzaketen kanon edo tasekiko independentea izango da (TRLA 113.7 artikulua).

D.1.4.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da eta horretarako balorizatzeko gune baimendu batera eraman behar dira. Hau izango da hondakinak ezabatu edo deuseztatzeko aukera bakarra: ezinezkoa izatea horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia eta gertutasun printzipioei jarraituz.

Hondakin jakin batzuk zabortegi baimenduan ezabatzea aurreikusten bada, horien karakterizazioa Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideak.

Hondakinak desagertu edo galdu egingo balira, edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Amurrioko Udalean.

D.1.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena
Tratamendu-putzuko finak

Sortutako hondakina lixibiatuak arrastatzen dituen partikula esekiek osatzen dute; partikulok tratamendu-putzuaren hondoan dekantatzen direnean, bertatik kentzen dira eta zabortegian jartzen dira berriro.

D.1.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Acería de Álava, SAk lurzorua babesteko neurri hauek hartu beharko ditu:

– Zabortegia egokitzeko lanak egitea, 1481/2001 Errege Dekretuaren arabera.

– Jariatze-urak kanalizazio perimetralen bidez jasoko dira; hartara, ez dira nahastuko isuritako hondakin-masarekin.

– Lixibiatuetatik datozen urak sare baten bidez jasoko dira, eta sarea euri-uren saretik bereizita egongo da.

– Piezometro bat izango da ibaian beherako urak eta isurketa-masaren barrualdea kontrolatzeko; hartara, betelan-masaren maila freatikoa ezagutzeko.

– Kontrol-lekukoak edo -mugarriak izango dira, isurketa-masaren beraren egonkortasunaren kontrola eta jarraipena egiteko.

D.1.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB(A) ere.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

D.1.7.– Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzeko obrak gauzatzeko baldintzak.

Gehienez ere sei hilabetez isuri ahalko dira hondakinak instalazioaren zabortegian, zigilatu beharreko gainazalaren konformatua egiteko (D15 kudeaketa-eragiketa).

D.1.7.1.– Zigilatze-obrak hasi aurretiko baldintzak.

Eraikitzailearekin eta sustatzailearekin loturarik ez duen obra-zuzendaritza bat izendatu behar du Acería de Álava, SAk. Zabortegiak eraiki eta zigilatzeko lanetan espezializatutako zuzendaritza izan behar du.

Horrez gainera, enpresa bat izendatu behar du, loturarik ez duena sustatzailearekin eta eraikitzailearekin, zabortegia zigilatzeko geosintetikoen instalazioari dagokion kalitate-bermea kontrola dezan. Enpresa hori izango da ebazpen honen D.1.7.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, Acería de Álava, SAk ingurumen-organoari jakinarazi behar dio zer enpresa izendatu den zuzendaritza teknikoa gauzatzeko eta zer enpresak egingo duen zigilatze-lanetarako geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola.

Hiru hileko epean, zabortegia zigilatzeko proiektu eguneratua eta indarreko araudiaren arabera-koa aurkeztu beharko zaio ingurumen-organo honi; gauzatzeko betekizunak, zigilatzearen segida eta obrak gauzatzeko epeak –ez dute 12 hilabete baino gehiago iraungo– zehaztu beharko dira. Gainera, zabortegia zigilatzeko obrak sei hileko gehieneko epean hasi beharko dira.

Gainera, argitaratu ondoren, zigilatze-obrak egiteko irizpideei buruzko argibide teknikoetan, ingurumen-organoak zehaztutakoetan, zehaztutakoa jarraitu beharko da.

D.1.7.2.– Zigilatzeko obrak egiteko baldintzak eta eskakizunak.

a) Zigilatze-segida. Geruza-sekuentzia hau izango du, behetik gora, zabortegiaren akaberako zigilatzeak:

● 0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko den-tsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

● Hesi geologiko artifiziala. 0,60 m-ko lodiera eta ≤10^{-9} m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzaz eraikia. Xede horretarako, ezaugarri horiek dituzten hondakin trinkotuak edo antzeko babesa bermatzen duen bentonitazko geokonpo-satua erabil daitezke.

●1,5 edo 2 mm-ko lodiera duen dentsitate handiko polietilenozko (HDPE) geomintza.

● Iragazketako ur garbien geruza drainatzailea. Ale-formako material natural baten geruzaz osatuta egon daiteke (legarrak edo hareak), azpitik sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez. Nolanahi ere, geruza drainatzaile horren igorgarritasuna drainatze-luzeraren, drainatzea-ren isurialdearen eta gaineko lurzoruaren estaldura-geruzaren eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatutako igorgarrita-sunarekiko ≥6ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gainditu ez ditzan; txikiena den neurria, hain zuzen ere.

● 0,60 m-ko gutxieneko lodiera duen estaldura-lurzoruaren geruza.

● 0,15 m-ko gutxieneko lodiera duen landare-lurzoruaren geruza.

● Gainazala belarkien bidez estaltzea. Zabortegiaren zigilatzearen gainean zuhaixkak edo zuhaitzak landatzea, helduak direla haien tamaina eta sustraiak, sakontasuna, mota, kokapena edo ezarritako babesak direla-eta, drainatze-geruzaren, geomintzaren edo zigilatzearen hesi geo-logiko artifizialaren segurtasunari edo funtzionaltasunari ez eragiteko baldintzapean egongo da; eta irristaduraren aurrean landaketak ez du segurtasun-faktorea 1,5etik behera murriztu beharko.

Bestelako zigilatze-segidak proposa daitezke, modu egokian justifikatuz instalazioaren gora-behera zehatzei emandako soluzioa.

Ezpondaren eremuetan instalatu aurretik, zigilatzea osatzen duten geruzen egonkortasunaren azterketa egin beharko da, irristaduraren aurrean geruzek ≥1,5-ko segurtasun-faktorea dutela ber-matu ahal izateko.

Zabortegiak gas kopuru adierazgarriak sortzen baditu, hesi geologiko artifizialaren azpian gasak drainatzeko geruza sartu beharko da.

Zigilatzeko lanak hasi baino lehen, berariazko baimena eskatu behar zaio ingurumen-organoari gehienez ere 6 hilabeteko epean. Nahitaez bete beharko da baldintza hori, baimena eraginkorra izan dadin. Halaber, organo honek ixteko plana onartu beharko du.

● Kalitatearen berariazko kontrol-plan bat gehitu beharko da nahitaez proposatutako zigilatzea burutzeko, definitutako obra-unitate guztien aurrekontu banakatu bat, eta proiektuan aurreikusitako fase guztien kronograma bat.

b) Malda egokiak izan daitezen, zabortegiaren azaleraren birmoldaketa amaitu ondoren, zabortegiaren azaleraren plano takimetriko bat altxatuko da, okupatuko duen azalera eta zigilatu beharreko azalera definituko duena. Gutxienez metro bateko zabalerako banda gehigarria okupatuko du, birmoldaketaren ostean zabortegiak okupatutako azalerarekiko. Plano takimetriko horren gainean, zigilatzeko lanetan zehar ager daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, horietako bakoitzean hauek zehaztuz: emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasun elektrikoa eta neurketaren eguna.

c) Zigilatze-lanetan zehar sortzen den eta proiektuan aldaketa nabarmenak eragiten dituen aldaketa oro Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio, balora dezan, eta behar bada, burutu aurretik onar dezan.

d) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatu ondoren, zigilatze-lanen zuzendariak lanak ebazpen honetan ezarritako baldintza eta betebeharren eta ebazpenaren oinarri den agiri teknikoen arabera bete dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obra-zuzendariak sinatutako zabortegia zigilatzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

○ Dagokion eraikitze-proiektua («as built»). Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasunaren murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzerakoan ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak zein planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

○ Iragazgaiztearen segidaren landare-lurraren geruzaren gainazalaren plano topografikoa, UTM koordenatuetan eta kota absolutuetan.

○ Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak hartuko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

e) Aurreko atalean adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta horri erantsitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio, horrek onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak isurketaren jarduera etetea, zigilatzearen bukaera eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko du.

D.1.8.– Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

a) Acería de Álava, SA, zabortegia ustiatzen duen erakundea den heinean, zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna izango da, eta funtzio horietaz arduratuko den pertsonaren izena jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari.

b) Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, edo itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatzen badira, zabortegiaren titularrak jakinarazi egin beharko du.

c) Itxi ondorengo kontrola eta zainketaldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jarduera eten eta zigilatzea bukatzen den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan barrena lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarriko dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

d) Acería de Álava, SAk itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa arduraduna izendatuko du. Enpresa hori zabortegiaren titularra ez baldin bada, titularrak enpresa hori gutxienez urtebeteko aldirako izendatuko du. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

e) Itxi ondorengo aldian zehar kokapenean jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, ingurumen-organoaren aurrean ziurtatu behar da jarduera horiek ez diotela eragiten zigilatzearen osotasunari, perimetro-kanalen jardunari, itxi ondorengo kontrol-sistemaren egonkortasunari edo elementuei, eta pertsonentzako arrisku onartezinik ez dakartela.

Horretarako, zigilatzean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia ezabatu egingo da.

Inola ere ez da baimenduko zigilatutako zabortegian bizitzea hura itxi ondoren. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-segidako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

D.1.10.– Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.10.1.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Isuritako uraren kalitatearen kontrola (lurpeko uren kontrola, lixibiatuen kontrola eta gainazaleko uren kontrola), sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoari jarraituz burutu behar da. Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia ustiatzeko fasean, lixibiatuak kontrolatuz gero, hurrengo ataletan zehaztutakora egokituko da gainera kontrola:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Zabortegiko lixibiatuak	pH-a, SJ, OEK, Amonioa, Olioak eta Koipeak, Aluminioa, Kobrea, Zinka, Kromoa, Artsenikoa, Kadmioa. Merkurioa, Beruna, Burdina, Eroankortasuna	Bi hilean behin	Kanpokoa
Lixibiatuak biltzeko kutxatila (AR-2)	Tratatu gabeko lixibiatuak	T, emaria, pH-a, Alkalinotasuna, OEK, Eroankortasuna, KOG eta kloruroak	Hilero	Autokontrola
		SJ, Al, Cd, Kromoa (VI), Cu, AOX, As, Kaltzioa, Fe, Hg, Ni, Pb, Zn, fenolak, sulfatoak eta karbonatuak.	Sei hilean behin	Autokontrola
-	Erreka kanalizatuaren ekialdeko ekarpena (PR-2a)	T, emaria, pH-a, Alkalinotasuna, Eroankortasuna.	Hilero	Autokontrola
-	Erreka kanalizatuaren mendebaldeko ekarpena (PR-2b)	T, emaria, pH-a, Alkalinotasuna, Eroankortasuna.	Hilero	Autokontrola
-	Ubidea, zabortegitik 50 m ibaian behera joanda (RE-3)	T, emaria, pH-a, Alkalinotasuna, Eroankortasuna.	Hilero	Autokontrola
-	Iturburua, zabortegiaren sarreraren ondoan (MA-5)	pH-a, kolorea, uhertasuna, Amonioa, Nitratoak, As, Oxidagarritasuna, Cd, Cr, Cu, Fe, Hg, Ni, Pb, Zn, kloruroak eta eroankortasuna	Sei hilean behin	Autokontrola
-	Iturburua, zabortegitik ibaian gora joanda (MA-6)	pH-a, kolorea, uhertasuna, Amonioa, Nitratoak, As, Oxidagarritasuna, Cd, Cr, Cu, Fe, Hg, Ni, Pb, Zn, kloruroak eta eroankortasuna	Sei hilean behin	Autokontrola
-	Iturburua, zabortegiaren sarreraren ondoan (MA-7)	pH-a, Oxidagarritasuna, Kloruroak eta eroankortasuna	Hiru hilean behin	Autokontrola
		pH-a, kolorea, uhertasuna, Amonioa, Nitratoak, As, Oxidagarritasuna eta Cd	Sei hilean behin	Autokontrola
-	Piezometroak, zabortegitik ibaian behera joanda (PI-4a – PI-4b)	Maila freatikoak, T, pH-a, alkalinotasuna, OEK, Eroankortasuna, KOG eta kloruroak	Hilero	Autokontrola

Kontrol bakoitza «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, ebazpen honetako D.1.3.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

Isurketan uren kalitatearen araudian (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria) araututako gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzean efluenteak ezaugarri baimenduekiko dituen balizko desbiderapenei, horien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

Parametroen analisia «Standard Methods For the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren azken argitalpeneko 11. sailean jasotako metodo normalizatuetako baten bidez egingo da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera egokiena dena hautatuko da. Gaur egun erabiltzen diren metodoak ez bezalako analisi-metodoak ezarri ahal izango dira, kutsatzaileen kontzentrazioa hobeto zehazteko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

Egoki deritzonean, Uraren Euskal Agentziak arazketa-instalazioak ikuskatuko ditu eta efluentea neurtu eta aztertu ahal izango du, isurketen emariek eta parametroek baimendutako mugak gainditzen ez dituztela egiaztatu ahal izateko. Halaber, arazketa-instalazioen ustiapenaren arduradun bat, titulazio egokia duena, izendatzea eskatu ahal izango dio titularrari.

D.1.10.2.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek urtero zabortegiaren balantze hidriko bat egin beharko du. Horretarako, Amurrioko estazioan erregistratutako lixibiatuen emariaren datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegiaren gainazalean sortzen diren aldaketen plano topografikoak (zigilatutako eremuak, isurketarako eremuak, eta abar.) erabiliko dira.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegiaren portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

Aipatutako balantzea dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

Gainera, balantze hidrikoa egiteko, ingurumen-organoak ezarritako jarraibide teknikoak jarraitu beharko dira.

D.1.10.3.– Isuriontziaren topografia kontrolatzea.

Isuriontziaren topografiaren kontrola Oinarrizko Proiektuan jasotako proposamenaren arabera gauzatu beharko da, eta, zehazki, Zaintza eta Kontrol Planaren txosten osagarriaren 6. atalean. Kontrol topografiko horren emaitzek hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Urtero zabortegiaren betetze-lanen plano topografiko eguneratu bat egin beharko da, zabortegiaren mugak, zabortegiaren zona zigilatua, eta azken urtean hondakinak utzi diren zabortegiaren zona zehaztuta dituena, eta horien azalerak eta zabortegiaren gainazalean aldaketak egin diren datak adierazita.

Agiriok dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira.

D.1.10.4.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira urtean behin: L_d, L_e, L_n ,L_{Aeq},T_i eta $L_{Aeq,60}$ segundo.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

D.1.10.5.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

Airearen kalitatearen gaineko eraginaren monitorizazioa egingo da; horretarako, partikula solido eta jalkikorrak aztertuko dira zigilatze-obrak gauzatzen direnean.

D.1.10.6.– Isuri atmosferikoen kontrola hondakin ez-arriskutsuen zabortegia ustiatu bitartean.

Urtean gutxienez immisioko laginketa-datuak biltzeko kanpaina bat egingo da, bai langileen lan-eremuetan edo lan-ingurunean, bai ustiategiaren ingurunean.

Laginketa-kanpaina horiek ahalik eta egoera okerrena duen aldean egingo dira. Lan-ingurunearen gaineko eragina baloratuko da, eragiketa eta lan guztietan, sarbideetan, isurketa-eremuan, etab. laginketa eginez.

D.1.10.7.– Tresnen kontrola.

Urtean behin, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek txosten bat egingo du neurri zuzentzaileen funtzionamenduari eta prozesuen eta inguruneko kalitatea kontrolatzeko sistemen funtzionamenduari buruz.

Aipatutako txostena dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

D.1.10.8.– Emaitzak igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txosten ezberdinen emaitzak behar bezala erregistraturik geldituko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dituzte Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak horretarako prestatu duen IZP Gidaliburuarekin bat etorriz. Webgune honetan dago eskuragarri gidaliburu hori:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-pcc/eu/

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egindako kontrol guztiak, ibilgu eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik (horrelakoen igorpena uren atalean zehaztuta dago), ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean baino ez dute berehala jakinarazi beharko, eta ingurumen-baimen bateratuan ezarritako mugak betetzea lortzeko neurriak ere aurkeztu beharko dituzte horrelakoetan. Kontrola egiten duten urteari dagokion programaren barruan baino ez dituzte igorriko, gainera, urtebete baino periodikotasun handiagoko kontrolak.

Ingurumena zaintzeko programa urtero bidaliko da, martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta

emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak, eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik egin ez bada.

Urteko txostenean, hurrengo urtean egin beharreko obren eta hondakinek bete beharreko eremuen aurreikuspena sartuko da, gutxi gorabeherako kotak, aurreko urtean utzitako hondakinen bolumenaren kalkulua, soberakin-gaitasuna eta urte horretan utzitako hondakinen batez besteko dentsitatea adieraziz.

D.1.10.9.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du sustatzaileak, eta, han, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduko ditu. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua izan beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D.2.– Metalezko hondakinak hartu, ikuskatu eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak.

Honetan datza Acería de Álava, SAren instalazioetako hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko jarduera:

● Altzairu herdoilgaitzezko hondakin ferrikoak bildu, hartu, sailkatu, hautatu eta biltegiratzea (R4 kudeaketa-eragiketa).

Prozesuan balorizatzen diren unera arte, hartutako hondakinak txatar-parkean biltegiratzen dira; hots, estalkidun egitura metaliko baten oinarrian eraikitako nabe angeluzuzen ireki batean.

Nabe estaliaren kanpoaldean, gainera, bilketa-gune bat dago; gune horretan, material sailkatu garbia baino ez da biltzen, nagusiki, taldeko enpresen ekoizpen-prozesuaren puntak eta ebakinak.

Txatarraren hasierako onarpena baskulan pisatu aurretik kontrolatzen da, erradiaktibitatea antzemateko sistema baten bidez.

Onartzen ez diren txatarrak itzuli egiten zaizkio hornitzaileari, kamioi berean.

Hondakinak hartu eta sailkatu ondoren, altzairu herdoilgaitza ekoizteko prozesuan sartzen dira lehengai gisa; azkenik, soldatzerik gabeko hodiak egiteko erabiltzen dira. Hodiok beroko estrusio bidez eta/edo hotzeko ijezketa bidez egiten dira, taldeak Laudion eta Amurrion dituen instalazioetan, hurrenez hurren.

Hondakinak txatar-parke estalian biltzen dira, eta bertako putzuek malda eta drainatze egokiak dituzte.

Halaber, hau bete beharko dute:

a) Hondakin ez-arriskutsuak baino ezin dituzte kudeatu, betiere Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendan jasota eta taula honetan zehaztuta badaude:

Hondakin mota	EHZ kodea
Zepa-tratamenduaren hondakinak (burdinazko metalak)	100201
Burdinazko metalen lima-hautsak eta txirbilak	120101
Burdinazko metalen hautsak eta partikulak	120102
Metalezko ontziak	150104
Burdinazko metalak	160117
Burdina eta altzairua	170405
Burdinaren eta altzairuaren hondakinak	191001
Burdinazko metalak	191202
Metalak	200140

Instalazioan inolaz ere ez dira onartuko ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, edo hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak.

Hartutako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordezten duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

Hondakinak beste autonomia erkidego batzuetatik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 25.2 artikuluaren arabera.

b) Baimenaren helburu diren hondakin ez-arriskutsuak onartu aurretik, hondakin horiek onartzen dituztela frogatzen duen agiria bidaliko zaio hondakinen titularrari. Agiri horretan onarpena zein baldintzatan egiten den zehaztuko dute. Agiri horren kopia bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

Partida bakoitza jaso aurretik baldintza horiek bete direla egiaztatu beharko da.

c) Instalaziora balorizatzera iristen diren hondakin ez-arriskutsuen kontrol bat eraman beharko da, hondakin horiek ebazpen honetako baldintzekin fabrikan onartuko direla bermatzeko.

Kontrol hori Ingurumen Sailburuordetza honek onetsitako onarpen-agirian ezarritako egiaztapena izango da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztapen hori sarrera-kontroleko agiri batean erregistratuta geratuko da.

d) Zamalanetan ibilgailuak geratzeko guneak atondutako lurzoruetan egingo dira, eta beharrezkoak diren maldak nahiz gerta daitezkeen isurketak biltzeko sareak izango dituzte, ondoren saneamendu-sarera bideratzeko.

Plantan hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzean, kontu handia izan beharko da kontrolik gabeko emisiorik edo emisio lausorik ez egoteko, edo, bestela, emisio horiek ahalik eta txikienak izateko. Alde horretatik, ekipoen estankotasuna ziurtatzea ere garrantzitsua izango da.

e) Balorizatu beharreko hondakin ez-arriskutsuak biltegiratzeko gehieneko denbora bi urtekoa izango da.

f) Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Acería de Álava, SAk fitxategi kronologikoa izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Fitxategian, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraiobidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jasoko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori gutxienez hiru urtez gordeko dituzte eta urtero bidaliko diote Ingurumen Sailburuordetzari dagokion urteko ingurumen-zaintzako programaren barruan, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 41. artikuluarekin bat etorriz.

g) Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketaren jarduera, baimen honen xede dena, zabaltzea edo eraldatzea ingurumen organoari jakinarazi behar zaio, eta dagokionean, ingurumen-organoak baimendu beharko du.

D.3.– Zenbait hondakin ez-arriskutsu jaso, biltegiratu eta erregistratzeko baldintzak eta kontrolak.

Honetan datza Acería de Álava, SAren instalazioetako hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko jarduera:

● Hondakin ez-arriskutsuak biltegiratzea, ekoizpen-prozesuan sartzeko.

Acería de Álava, SAk iragazketa-sistemen mahuka-iragazkiak, desugerketako upelen berotze-sistemen mantentze-lanetan kendutako grafito-erregailuak, eta Kamag ibilgailuen tenkagailuak eta mantentze-lanetan sortzen diren altzairugintzako beste ekipo batzuk kudeatzen ditu. Hondakinak instalaziotik eta taldeak Laudion eta Amurrion dituen bi instalazioetatik datoz.

Gehieneko tratamendu-ahalmena 10 t/urte da.

Instalazioan baliotzea egiteko onartzen diren hondakinak ondorengo ataletan zehaztuko dira. Gainera, horiek zuzen kudeatzeko zehaztapenak jasotzen dira.

Halaber, honako hau bete beharko dute:

a) Acería de Álava, SAren instalaziotik edo taldeak Laudion eta Amurrion dituen bi instalazioetatik datozen hondakin ez-arriskutsuak baino ezin dituzte kudeatu, betiere Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratutako hondakinen zerrendan jasota eta taula honetan zehaztuta badaude:

Hondakin mota	EHZ kodea
Mahuka-iragazkiak (galdaketa izan ezik)	150203
Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko osagaiak (tenkagailu hidraulikoak).	160122
Grafito-erregailuak	161102

Instalazioan inolaz ere ez dira onartuko Ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, edo hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, bestelako hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak.

Hartutako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordezten duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

b) Baimenaren helburu diren hondakin ez-arriskutsuak onartu aurretik, hondakin horiek onartzen dituztela frogatzen duen agiria igorriko zaio hondakinen titularrari. Agiri horretan onarpena zein baldintzetan egiten den zehaztuko dute. Agiri horren kopia bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

Partida bakoitza jaso aurretik baldintza horiek bete direla egiaztatu beharko da.

c) Instalaziora balorizatzera iristen diren hondakin ez-arriskutsuen kontrol bat eraman beharko da, hondakin horiek ebazpen honetako baldintzekin fabrikan onartuko direla bermatzeko.

Kontrol hori Ingurumen Sailburuordetza honek onetsitako onarpen-agirian ezarritako egiaztapena izango da. Agiri horretan, muga-parametroak eta onartzeko baldintzak ezarriko dira. Egiaztapen hori sarrera-kontroleko agiri batean erregistratuta geratuko da.

d) Zamalanetan ibilgailuak geratzeko guneak atondutako lurzoruetan egingo dira, eta beharrezkoak diren maldak nahiz gerta daitezkeen isurketak biltzeko sareak izango dituzte, ondoren saneamendu-sarera bideratzeko.

Plantan hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzean, kontu handia izan beharko da kontrolik gabeko emisiorik edo emisio lausorik ez egoteko, edo, bestela, emisio horiek ahalik eta txikienak izateko. Alde horretatik, ekipoen estankotasuna ziurtatzea ere garrantzitsua izango da.

e) Hondakinak hormigonatutako zolan biltegiratuko dira, gerta daitezkeen ihes edo isurien balizko eragina saiheste aldera; hala gertatuz gero, horiek bildu eta karakterizatu egingo dira.

Balorizatu beharreko hondakin ez-arriskutsuak gordetzeko gehieneko denbora bi urtekoa izango da.

f) Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Acería de Álava, SAk fitxategi kronologikoa izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Fitxategian, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraiobidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gorabehera batzuk jasoko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori gutxienez hiru urtez gordeko dituzte eta urtero bidaliko diote Ingurumen Sailburuordetzari dagokion urteko ingurumen-zaintzako programaren barruan, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 41. artikuluarekin bat etorriz.

g) Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketaren jarduera, baimen honen xede dena, zabaltzea edo eraldatzea ingurumen organoari jakinarazi behar zaio, eta dagokionean, ingurumen-organoak baimendu beharko du.

D.4.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.4.1.– Baldintza orokorrak.

Acería de Álava, SAren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteek giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Atmosferako kutsadurari aurre egiteko neurriak daude jasota proiektuan, eta beti beteko dituzte neurriok. Bereziki, hautsa isurtzea ekiditeko neurriak hartuko dira: hala nola, agregakin-pilak ureztatzea eta bideak garbitzea.

Abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren (Instalazioaren titularrek atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzekoa) 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: atala, neurketa-gunea, laginketa-gunea, neurketa-portua, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri baterako baimena ematen ondoren, fokua abian jarri eta sei hilabete igaro aurretik, ingurumen-kontroleko erakundeak egindako hasierako IKE txostena igorri beharko da. Nolanahi ere, Ingurumen Sailburuordetzari epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

D.4.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Altzairugintzako eta zabortegiko jardueretan diharduen Acería de Álava, SAren instalazioak 03 03 02 01 eta 04 02 07 01 jarduerei lotutako hurrengo foku hauek ditu –atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta aplikatzeko oinarrizko xedapenak zehazten dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren katalogoan jasota daude–:

Foku-zenbakia	Fokuaren kodea	Isurien fokuaren izena	Altuera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	Funtzionamendu-erregimena	Koordenatuak UTM	
1	1003661-01	HEA labea eta AOD	30	5,3	04 02 07 01	Foku sistematikoa	499.845	4.764.812
2	1003661-02	Altzairugintzako iragazkia	-	-	04 02 07 01	Foku sistematikoa	499.799	4.764.794
3	1003661-03	PIT 1 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.017	4.764.789
4	1003661-04	PIT 2 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.019	4.764.794
5	1003661-05	PIT 3 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.022	4.764.800
6	1003661-06	PIT 4 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.025	4.764.805
7	1003661-07	PIT 5 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.027	4.764.810
8	1003661-08	PIT 6 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.030	4.764.815
9	1003661-09	PIT 0 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.033	4.764.821
10	1003661-10	PIT 7 labea	22	0,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	500.014	4.764.784
11	1003661-11	Forjarako birberotzeko labea	18	1,2	03 03 26 06	Foku sistematikoa	499.942	4.764.879
13	1003661-13	Makroeraso azidoa	2,5	0,18	04 02 10 05	Foku sistematikoa	499.882	4.764.911
14	1003661-14D	Laborategiko kanpaia	-	0,25	-	Foku ez-sistematikoa	-	-
15	1003661-15	Xurgatze oxiebaketa	3	0,8	04 02 08 03	Foku sistematikoa	499.755	4.764.824
16	1003661-16	Berotzeko tarteko labea	17	1,8	03 03 02 01	Foku sistematikoa	499.831	4.764.676

Foku ez sistematiko horietako bat, bataz beste, urtean hamabi aldiz baino gehiagotan funtzionatzera pasatzen bada, ordubete baino gehiagoko iraupen indibiduala duela, edo maiztasuna edozein dela ere, isurpenen iraupena orokorrean hartuta instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bost baino gehiagokoa bada, isurpen sistematikoko foku gisa araupetu beharko da.

Fokuk sistematiko baterako funtzionamendu-baldintzarik ez dagoenean urte jakin batean, ez da beharrezkoa izango foku horren gaineko kontrolik egitea urte horretan. Hurrengo urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek jarraitzen ez badute. Inguruabar hori ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da.

Gainera, isuri barreiatuak sortzen dira granailatzeko makinen zonetan, isurtzean, lingote-ontziak berotzeko labean, gas naturalaren erregailuetan, hipertenplatzeko labean, zuritzeko makinan, esmerilagailuan, ebakitzeko zerran, kare-biltegian, kanpoko oxiebaketan, kanpoan zepa zuriak tratatu eta maneiatzean, zepak biltegiratu eta berreskuratzean eta geldoen zabortegian. Isurketa horiek prozesu etenetan gertatzen dira, zepak biltegiratzeko eta berreskuratzeko guneak izan ezik, geldoen zabortegian, prozesu etenetan gertatzen direnetan.

D.4.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Planta ustiatzean, atmosferara egiten diren isurietan, ez dira gaindituko isurien mugako balio hauek:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak	Metodoak
1. fokua	Partikulak	5 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	300 ppm	
	Hg	0,05 mg/Nm^3	UNE-EN 13211
	PCDD/F	0,1 ng I-TEQ/Nm^3	UNE-EN 1948
2. fokua	Partikulak	5 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	300 ppm	
	Hg	0,05 mg/Nm^3	UNE-EN 13211
	PCDD/F	0,1 ng I-TEQ/Nm^3	UNE-EN 1948
3. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
4. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
5. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
6. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
7. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
8. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
9. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
10. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
11. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
13. fokua	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	UNE-EN 14792
	HCl	30 mg/Nm^3	UNE-EN 1911
15. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1
16. fokua	CO	500 ppm	IT-02: Isuri atmosferikoak kontrolatzea
	NO_x (NO_2 gisa)	400 mg/Nm^3	
	Partikulak	150 mg/Nm^3	UNE-EN 13284-1

Funtzionamendu-baldintza normaletan, gas primarioen isurketa nagusia 1. fokuaren (HEA labea eta AOD) bidez egiten da.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuko 9 artikuluak ezartzen duena beteko da.

Jarraian neurtutako parametroen neurketei dagokienez (1. fokua) (guztizko partikulak) aurreko emisioko muga-balioak betetzen direla jotzen da baliozkotutako eguneko batez besteko balioek ez badute emisioko muga-balioa gainditzen. Baliozkotutako batez besteko eguneko balioak ustiaketa eraginkorraren epean zehaztuko dira (martxan jartzeko eta gelditzeko epeak salbuetsita), neurtutako erdiordutegiko batez besteko balio baliodunak oinarritzat hartuta eta betiere, ondoren zehaztutako konfiantza-tartearen balioa kendu ostean:

Isurtzeko gehienezko balioetan zehaztutako % 95eko konfiantza-tartearen balioak ez ditu ondorengo isurtzeko muga-balioen ehunekoak gainditzuko: guztizko partikulen % 30.

Erregistro-denbora ez-baliozkotzat jotzen dira neurketa-ekipoen mantentze-lanak, matxurak edo funtzionamendu okerra.

Mugako emisio-balioren bat betetzen ez dela ikusten bada, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta berehala ingurumen-arloko eskumena duen sailari ez-betetzearen, neurri zuzentzaileen eta haien epeen berri eman beharko zaio.

D.4.4.– Gasak hartu eta kanporatzeko sistema.

Guneetako hondar-gasak husteko tximiniak D.4.2 zenbakian ezarritako kotatik gora helduko dira. Laginketa-puntuen atalak eta kokapena argitaratutako jarraibide teknikoetan zehaztutakoa bete beharko dute.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienean, Ingurumen Sailburuordetzako jarraibide teknikoak bete beharko dira.

D.4.5.– Zehaztugabeko isuriak kanpoaldean.

Zepa zuriak nabearen barruan manipulatzen eta tratatzen dira, zehaztugabeko isuriak gutxitzeko.

Gainera, erregogorraren, zepa grisen eta zepa zurien hondakinen zati metalikoa bereizten eta berreskuratzen da bertan.

D.5.– Ibilgura isurketak egiteko baldintzak.

D.5.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakinuren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Lingoteak hozteko urak eta euri-urak	Nerbioi ibaia	Nerbioi-Ibaizabal	I	X: 500.022 Y: 4.764.776
2. isurketa	Ur beltzak	Ur beltzak	Nerbioi ibaia	Nerbioi-Ibaizabal	I	X: 500.005 Y: 4.764.760

D.5.2.– Gehienez isuri daitezkeen emariak eta bolumenak.

● Isurketa: industria-urak eta ur beltzak.

Orduko puntako emaria	*68 m^3/h*
Eguneko gehieneko bolumena	*140 m^3 eguneko*
Urteko gehieneko bolumena	*32.000 m^3 urteko*

D.5.3.– Isurketaren ezaugarriak.

Hauek dira ibilgurako isurketaren kutsadura-parametro bereizgarriak:

1. eta 2. isuriak: lingoteak hozteko urak eta ur beltzak.

Parametroak	Isuriaren ezaugarriak
pH-a	5,5 - 9,5
Solido esekiak	< 150 mg/l
DBO_5	< 60 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Olioak eta koipeak	< 25 mg/l
Detergenteak	< 3 mg/l
Burdina	< 3 mg/l
Amonioa	< 50 mg/l
ΔT ingurunean	< 3 ºC

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileko ingurumen-arloko kalitate-arauak bete beharko dira. Bestela, titularrak behar den tratamendu egokia ezarri beharko du, isurketa arauak ez betetzearen arrazoia izan ez dadin.

D.5.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

- Putzu septikoak.
- Hozteko urak dekantatzeko putzua.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Acería de Álava, SAk behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurrerago, Nerbioi ibaiaren saneamendurako kolektore orokor bat jarriko balitz inguruan, horretara konektatu beharko lirateke isurketak, horretarako bideragarritasun teknikoa dagoenean, eta eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko zaio idatziz.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak

diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

D.5.5.– Isurketa-kanona.

Uraren Legearen testu bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurketa-kanonari dagokion zenbatekoa:

(IK): Isurketa-kanona = V x Pu.

Pu = Pb x Cm.

Cm = C2 x C3 x C4.

Osagaiak ondokoak izanik:

V = Baimendutako isurketaren bolumena (m^3 urtean).

Pu = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

Pb = Oinarrizkoa prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Cm = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C4= Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: industria-erabilerako urak:

V: bolumena	V = 32.000 m^3/urte
Pb: Hondakin-ura: industriala	Pb = 0,04207 €/m^3
C2: 1. mota	C2 = 1,0
C3: Tratamendu egokirik gabe	C3 = 2,5
C4: Kategoria-gunea: I	C4 = 1,25

Cm = 1,0 x 2,5 x 1,25 = 3,12500.

Pu = 3,12500 x 0,04207 = 0,13147 euro/m^3.

Isurketa-kanona = 32.000 x 0,13147 = 4.207,04 euro/urte.

D.6.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da eta horretarako balorizatzeko gune baimendu batera eraman behar dira. Hau izango da hondakinak ezabatu edo deuseztatzeko aukera bakarra: ezinezkoa izatea horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik. Beti egiaztatu beharko da hori horrela dela. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken destinoa zabortegi baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartu behar dira. Datu horiek jardueraren adierazletan ageri dira. 5/2013 Legearen 10. artikuluan (4.d atala) ezarritakoaren kalterik gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts-itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu edo galdu egingo balira, edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Amurrioko Udalean.

Sortutako hondakinak beste erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duen 180/2015 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 25.2 artikuluaren arabera.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badituzte, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren, 2006ko ekainaren 14koaren, 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarritakoa bete beharko dute.

D.6.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

2. prozesua: «Ijezketa».

1. hondakina: «azido agortuak (nitrikoak+klorhidrikoak)».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/2/1.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C23.

Arrisku-ezaugarria(k): H8.

EHZ: 110106.

Urtean sortutako kantitatea: 0,35 t.

Makroeraso-bainua birjartzean sortzen da. Hondakin horretarako identifikatutako plastikozko bidoian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

5. prozesua: «Akabera».

1. hondakina: «ebaketa-likido agortua».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/5/1.

Helburu-eragiketaren kodea: D9/R1.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: 3 tona.

Mekanizazio-eragiketetan ebaketa-likidoa erabiltzean sortzen da. Sortze-puntutik zuzenean biltzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

2. hondakina: «ebaketa-likidoaren zepa».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/5/2.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: tona 1.

Mekanizazio-eragiketetan ebaketa-likidoa erabiltzean sortzen da. Hondakin arriskutsuen biltegian identifikatutako bidoian jasotzen da.

7. prozesua: «Gas efluenteak araztea».

1. hondakina: «Altzairugintzako hautsak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/7/1.

Helburu-eragiketaren kodea: R4.

Osagai arriskutsuak: C5/7/18.

Arrisku-ezaugarria(k): H13/14.

EHZ: 100207.

Urtean sortutako kantitatea: 1.100 tona.

Galdaketako eta finketako gasak iragaztean sortzen da. Mekanikoki ateratzen dute, eta silotan biltegiratu. Bertatik atera eta kudeatzaile baimenduari entregatzen zaio.

2. hondakina: «Mahuka-iragazki erabiliak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/7/2.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C5/7/18.

Arrisku-ezaugarria(k): H13/14.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: Tona 1.

Gasak arazteko sistemaren iragazkietako mahukak aldatzean sortzen da. Big-bagean jasotzen da, ondoren, labean sartuta autokudeatzeko.

8. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

1. hondakina: «Berotan ijeztearen lohiak (dekantagailu sekundarioa)».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/8/1.

Helburu-eragiketaren kodea: D9.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 100211.

Urtean sortutako kantitatea: 500 tona.

Ijezketatik eta hipertenplatzetik datorren uraren arazketa-instalazioko dekantazio sekundarioan sortzen da. Identifikatutako edukiontzian jaso eta biltegiratzen da, eta, ondoren, kudeatzaile baimendu batek kentzen du.

2. hondakina: «Ijezketako ur oliotsuak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/8/2.

Helburu-eragiketaren kodea: D9.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 100211.

Urtean sortutako kantitatea: 20 tona.

Ijezketatik eta hipertenplatzetik datorren uraren arazketa-instalazioko dekantazio sekundarioan sortzen da. Sortze-puntutik zuzenean erretiratzen da, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

3. hondakina: «Tratamendu-urak eta -lohiak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/8/3.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C24.

Arrisku-ezaugarria(k): H8/14.

EHZ: 190813.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

9. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

1. hondakina: «Erabilitako olioak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/1.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5/6.

EHZ: 130205.

Urtean sortutako kantitatea: 5 tona.

Ekipo eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin arriskutsuen biltegian identifikatutako edukiontzian jasotzen da.

2. hondakina: «olio dielektrikoak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/2.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5/6.

EHZ: 130307.

Urtean sortutako kantitatea: 2 tona.

Ekipo elektrikoetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin arriskutsuen biltegian identifikatutako edukiontzian jasotzen da.

3. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatuak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/3.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C41.

Arrisku-ezaugarria(k): H3b/5.

EHZ: 140603.

Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Piezak garbitzeko eta deskoipetzeko eragiketetan sortzen da. Kudeatzaile baimenduak eramaten du zuzenean instalaziotik.

4. hondakina: «Pb bateria agortuak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/4.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C18/23.

Arrisku-ezaugarria(k): H8

EHZ: 160601.

Urtean sortutako kantitatea: 300 kilogramo.

Bateriak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Edukiontzi identifikatuan biltzen da; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

5. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta/edo bestelako hondakin merkuriodunak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/5.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6/14.

EHZ: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Kaxa identifikatuan biltzen da; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

6. hondakina: «Pilak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/6.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C7/11/16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6/14.

EHZ: 200133.

Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Edukiontzi identifikatuan biltzen da, eta Arabako Foru Aldundiaren bilketa-zerbitzuari ematen zaio.

7. hondakina: «PKB duen transformadorea».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/7.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C32.

Arrisku-ezaugarria(k): H6/7.

EHZ: 160209.

Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuko hondakin gisa sortzen da; zuzenean kentzen dira, baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

8. hondakina: «PKBrik gabeko kondentsagailuak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/8.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 160213.

Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuko hondakin gisa sortzen da; bidoi identifikatuan biltzen da eta, zuzenean kendu, baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

9. hondakina: «Hondakin oliotsuekin kutsatutako solidoak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/9.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 9 tona.

Xurgatzaileak eta zuntzak biltzean sortzen da. Edukiontzi identifikatuan biltzen da; beteta dagoenean, big-bag batean sartzen da hondakina biltegiratze-gunean.

10. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontzi hutsak (bidoiak)».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/10.

Helburu-eragiketaren kodea: R4.

Osagai arriskutsuak: C41/51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5/14.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 3,5 tona.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakinen biltegian identifikatuta dagoen gune batean jasotzen da.

11. hondakina: «Pintura-hondarrak dituzte pote hutsak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/11.

Helburu-eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C41.

Arrisku-ezaugarria(k): H14.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: Tona 1.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Edukiontzi identifikatuan biltzen da; beteta dagoenean, big-bag batean sartzen da hondakina hondakinen biltegian.

12. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektroniko zaharkitua».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/12.

Helburu-eragiketaren kodea: R4.

Osagai arriskutsuak: C6/18.

Arrisku-ezaugarria(k): H6/14.

EHZ: 160213.

Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin arriskutsuen biltegian identifikatutako gunean jasotzen da.

13. hondakina: «Koipe erabiliak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/13.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 120112.

Urtean sortutako kantitatea: 300 kilogramo.

Instalazioen mantentze-lanetan sortzen da. Bidoi-parkean gortzen den balezta-bidoi identifikatuan biltzen da.

14. hondakina: «Substantzia arriskutsuak eduki dituzten plastikozko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/14.

Helburu-eragiketaren kodea: R3.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Bidoi-parkean biltegiratzen dira.

15. hondakina: «Olio kutsatuak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/15.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

EHZ: 130507.

Urtean sortutako kantitatea: 3 tona.

Instalazioen mantentze-lanetan sortzen da. Bidoi-parkean dagoen bidoi identifikatuan biltzen da.

17. hondakina: «Aerosolak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/17.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C40.

Arrisku-ezaugarria(k): H3b/5.

EHZ: 160504.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

18. hondakina: «Laborategiko hondakinak (erreaktiboak)».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/9/18.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C23/24.

Arrisku-ezaugarria(k): H6/8.

EHZ: 160506.

Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

10. prozesua «Mahuka-iragazkien autokudeaketa».

1. hondakina: «Mahuka-iragazki erabiliak».

Identifikazioa: A01010958/0100004700/10/1.

Helburu-eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C5/7/18.

Arrisku-ezaugarria(k): H13/14.

Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C5/7/18//H14/13//A212//B9204.

EHZ: 150202.

Gasak arazteko sistemaren iragazkietako mahukak aldatzean sortzen da. Big-bagean jasotzen da, labe elektrikoan sartuta autokudeatzeko.

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hauek zehazten dituztenak dira: hondakinaren mota eta osagai arriskutsuak, ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehe-xehe jasota. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2015-2020) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) «Ijezketako ur oliotsuak» eta «Disolbatzaile organiko ez-halogenatuak» hondakinak zuzenean sortzen dituen instalazioko biltegitik jaso beharko dira, baimendutako kudeatzaileari emateko aurrez ontziratu edo bildu behar izan gabe.

d) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek indarreko araudian ezarritako segurtasun-arauak bete behar dituzte, eta argi nahiz irakurtzeko eta ezin ezabatuzko moduan etiketatu beharko dira.

e) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Acería de Álava, SAk onarpen-agiriak eta kontrol- eta jarraipen- agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu eta artxiboan gorde behar ditu, hiru urtez, gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak honako betekizunak betetzen dituela: halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutakoak.

i) Instalazioan, bertan sortutako hondakin hauek kudeatu ahal izango dira: mahuka-iragazki erabiliak. Ez da inoiz gainditukо instalazioaren urteko tratamendu-ahalmen maximoa (karga maximoak ez du gainditukо karga guztiaren pisuaren % 0,5).

j) Acería de Álava, SAk ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

k) Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Errege Dekretuan (otsailaren 20ko 110/2015) xedatuaren arabera kudeatuko dira. Halaber, otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak (pilen eta metagailuen hondakinek pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa) xedatutakoa bete beharko dute. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, baita toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

l) Acería de Álava, SAk poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Acería de Álava, SAk era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

n) Acería de Álava, SAk urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko da.

o) Instalazioan mahuka-iragazki erabilien dosifikazio- eta tratamendu-eragiketak jasoko dituen erregistroa eguneratuta edukiko dute, eta gutxienez datu hauek agertuko dira bertan:

i) Kudeatutako hondakinen kantitateak, jatorria, osaera eta identifikazio-kodea.

Ii. Hondakin horien aldizkakotasuna eta dosifikatze-maila.

Iii. Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

Iv. Tratamenduaren ondoriozko hondakinen kantitateak, jatorria, osaera eta identifikazio-kodea.

v) Hondakin horiekin jarraitutako kudeaketa, helmuga identifikatzeko datuak eta datak.

Erregistro horren kopia bat eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa bidali beharko dituzte Ingurumen Sailburuordetzara.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarrizko printzipioetako bat betetzeko, zeina hondakin horiek ahalik eta gutxien sortzea baita, Acería de Alaba SAk prebentzioko neurriak aplikatuz hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, lau urtetik behin, Hondakin eta Zoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere, aipatu legearen garapenerako araubideak ez badu Acería de Álava, SA hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

q) Baldin eta Acería de Álava, SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) Lehen Xedapen Gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengatik eskuratutako merkataritarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati eman beharko dio.

r) Atal honetako f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta p) puntuetan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM sistema erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak hautemanez gero, Acería de Álava, SAk amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura prebenitu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

D.6.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Kalkulatutako ekoizpena (t/urtean)
Material elektronikoa	200136	Zerbitzu orokorrak	7
Brontze-hondakinak	170401	Zerbitzu orokorrak	0,8
Kobre, latoi eta burdina hondakinak	170401	Zerbitzu orokorrak	6
Egur-hondakinak	170201	Zerbitzu orokorrak	13
Ijezketako eta forjako herdoil-azala	100210	Ijezketa, forjaketa eta tratamendu termikoa	310
KAMAG gurpil trinkoak	160103	Parke mugikorra	-
Putzu septikoko lohiak	200304	Zerbitzu orokorrak	63
Opil herdoilgaitzak	100214	Altzairutegia	1.025
Erregogorra	161104	Galdaketa eta finketa	9.496
Zepa zuriak	100201	Galdaketa eta finketa	2.417
Zepa beltzak	100201	Galdaketa eta finketa	-
Zepa grisak	100201	Galdaketa eta finketa	-
Garbiketako hondarrak/obra-hondakinak	200399	Zerbitzu orokorrak	847
Totxoak hoztu ondorengo lohiak	100215	Zerbitzu orokorrak	13
Hondakin plastikoak	170203	Zerbitzu orokorrak	15

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatatzaile baimendu bati emango zaizkio.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua balorizatzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposaturiko kudeaketaren egokitasuna egiaztatzeko eta ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Acería de Álava, SAk erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, derrigorrezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

d) Horrez gain, 49/2009 Dekretuan ezarritakoa betez (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzekoa), baimendutako hondakindegian biltzeko hondakin ez-arriskutsuak lekualdatu aurretik, dagokion segimendu- eta kontrol-agiria bete beharko da.

e) Baldin eta Acería de Álava, SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) Lehen Xedapen Gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengatik eskuratutako merkataritarako edo industriarako ontzi baten azken jabea bada, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna da, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati eman beharko dio.

f) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituena: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtean behin, kontrol-erregistro horren kopia bat eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

g) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM sistema erabilita.

D.6.3.– Ontziak merkaturatzea.

Acería de Álava, SAk, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta enbalajeak erabiltzen dituen enpresa den aldetik, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, ontzien gaineko urteko adierazpena egin beharko du. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko da.

Era berean, Acería de Álava, SAk ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko biltegiratze- eta itzultze-sistema bat ezarri beharko du derrigorrez (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Acería de Álava, SAk bere produktuak merkaturatzeko industria- edota merkataritza-ontziak erabiltzen baditu, aipatu betebehar horretatik salbuesteko eskatu ahalko du, Ontzi eta Ontzi Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) Lehen Xedapen Gehigarriari atxikitzen bazaio; atxikimendu horren bidez, ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio.

Baldin eta Acería de Álava, SAk, urte natural baten zehar, ondoren zehazten diren kantitateak baino gehiagoko hondakinak sortu ahalko dituen ontziratutako produktuak edota industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 21 tona, plastikoa soilik bada.
- 16 tona, egurra soilik bada.
- 14 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 350 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Ontzien hondakinak prebenitzeko enpresa-plana egin beharko du. Plan horrek hiru urteko iraunaldia izango du, eta onartutako Enpresaren Prebentzio Planaren kontrol- eta jarraipen-txostena egin beharko zaio urtero, martxoaren 31 baino lehen. Bi agiriok dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko da.

D.7.– Lurzoruari buruzko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean zehaztutako betebeharrak betez aurkeztutako egoerari buruzko aurretiazko txostenarekin bat eta horretan jasotako gomendioei jarraikiz, Acería de Álava, SAk behar diren neurriak hartu beharko ditu lurzorua babesteko, manipulatutako materialak eta identifikatutako arrisku-guneak aintzat hartuta, bai eta lurzorua babesteko honako neurri hauek ezarrita eduki ere:

– Petrolio-instalazioa lehengoratzea: lurpeko deposituek inguruko ingurunerako arrisku izateari utz diezaioten.

– Zepa-parkearen mantentze-lanen protokoloa berrikustea.

– Sarbide-kontrol bat eta estalki bat instalatzea olioen eta gasolioaren biltegian, instalazioan sortutako fluidoak mugatzeko, euritik babestuta baitago.

– Hormigoizko zola bat eraikitzea patioan (herdoil-azal lehor metalikoa).

– Berariazko bilketa-sistema bat eraikitzea, eta hormigoizko zola bat jartzea kare-dorrean gunean.

Bost urtez behin, ebazpen hau jasotzen denetik hasita, eguneratu egin beharko da lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiko txostena, instalazio guztiei dagokion kutsadura-arriskuaren ebaluazio bat erantsiz. Txosten hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko da.

Nolanahi ere, ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitako inguruabarren bat gertatzen denean, sustatzaileak dagokion lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena lortzeko prozedura hasteko eskatu beharko dio ingurumen-organoari.

Lur-mugimenduak egitea biltzen duten obrak egin behar direnean (baita produkzio-jardueraRik gabeko eremuetan ere), jardueraren sustatzaileak hondeatu behar dituen materialen (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizazioa egin beharko du, jardun kutsatzaileen ondorioz kalterik jaso ote duten egiaztatzearren, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, haiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearren.

Alabaina, obrak aldez aurretik inolako jarduerarik izan ez duten eremuetan egin behar badira, karakterizazioa egin gabe uzteko aukera izango da, betiere jarduerarik eza hori behar bezala justifikatzen bada.

Ingurumen-organo honen aurrean justifikatu beharko da induskatutako zati bakoitzarentzat proposatutako kudeaketa-modua egokia dela, organoak onartu aurretik; proposatutako azken xedea (kanpo-kudeaketa edo kokapen berean berrerabiltzea) adierazi beharko da eta egindako azterketen kopia bat erantsi:

1.– Soberakinak zabortegian biltegiratuta hustu nahi izanez gero, hondakinak hondakindegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500 m^3 bakoitzeko 10 azpilagin izango ditu gutxienez, baina hori espero daitekeen kutsaduraren heterogenotasunaren eta homogeneotasunaren arabera aldatu ahal izango da. Afekzioa homogeneoa izango dela aurreikusten den kasuetan, 500 m^3-ko bolumena baino bolumen handiagoa duten unitateez osatutako lagin konposatua hartu ahal izango da eta, aldiz, afekzio heterogeneoaren kasuan, 500 m^3-ko bolumena baino bolumen txikiagoa duten unitateekin.

2.– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, ekainaren 25eko 4/2015 Legean –Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoan– ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpiko balioa eduki beharko dute material horiek, eta lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, laginketa eta azterketa erakunde egiaztatu batek egin beharko du honen arabera: urriaren 10eko 199/2006 Dekretua, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

3.– Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako VIE-A ebaluazioko balio adierazleak 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

4.– Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalaren pareko den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluaren 2. atalaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, dagokion udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari horren berri eman beharko zaie, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, betiere aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluaren 1.e atalari jarraikiz.

Sei hilabeteko epean, substantzia kutsatzaile garrantzitsuei dagokienez, lurzoruak eta lurpeko urek duten hasierako egoera zehazten duen oinarrizko txosten bat aurkeztu beharko da, jarduera behin betiko amaitzen denean konparazio kuantitatiboa egin ahal izateko.

Halaber, epe berean, lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatea kontrolatzeko proposamen bat aurkeztu beharko da; proposamen horrek gutxienez honako hauek bilduko ditu: karakterizazioa egiteko bi zundaketa, erauzitako zutabearen karakterizazioa eta lurpeko uren jarraipena egiteko

erabiliko diren piezometroak prestatzea. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa, eta instalaziotik gorako eta beherako uren jarioa alderatu ahal izango da. Jakinarazi beharko da instalazioa kokatzen den lurzatiak eraginik baduen Interes Hidrogeologikoko lekuetan, Jabari Publiko Hidraulikoan edo Eremu Babestuen Erregistroko lekuetan.

D.8.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula: Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran bete beharreko zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu gainditukо 1. taulan 5 dB-tan finkatutako balioak.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

D.9.– Txatarra produktu gisa onartzeko baldintzak.

Produktu gisa jasotako burdin eta altzairuzko txatarrei dagokienez, adostasun-deklarazio egokiak eduki beharko dituzte Kontseiluaren martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Erregelamendu horrek irizpideak ezartzen ditu txatar mota jakin batzuek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera noiz uzten diote hondakin izateari zehazteko.

E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

E.1.1- Kanpo-kontrolak.

a) Acería de Álava, SAk botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1003661-01	HEA labea eta AOD	Partikulak	Jarraitua
1, 2	1003661-01 1003661-02	HEA labea eta AOD Altzairugintzako iragazkia	Partikulak CO NO_x Hg PCDD/F SO_2 HF, HCl, Cl Metal astunak (Zn, Pb, Ni, Hg, Cu, Cr, As, Cd) KOLEM	Urtean behin
3	1003661-03	PIT 1 labea	Partikulak NO_x CO	3 urte
4	1003661-04	PIT 2 labea		
5	1003661-05	PIT 3 labea		
6	1003661-06	PIT 4 labea		
7	1003661-07	PIT 5 labea		
8	1003661-08	PIT 6 labea		
9	1003661-09	PIT 0 labea		
10	1003661-10	PIT 7 labea		
11	1003661-11	Forjarako birberotzeko labea	Partikulak NO_x CO	3 urte
13	1003661-13	Makroeraso azidoa	NO_x HCl	3 urte
15	1003661-15	Xurgatze oxiebaketa	Partikulak	5 urte
16	1003661-16	Berotzeko tarteko labea	Partikulak NO_x CO	3 urte

2. fokuaren «altzairugintzako iragazkia» neurketak Ingurumen Sailburuordetzak baliozkotutako prozedura baten bidez egiten dira.

b) Kontrol hauek Administrazioko Lankidetza Erakunde batek egin beharko ditu, Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa betez, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa-kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) letran azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek funtzionatzen badu urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin, eta emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozein maiztasunarekin, baldin eta emisioaren iraupen globala plantaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gora bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean

egin beharko da, baldin eta kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

d) Neurketa jarraitua.

Acería de Álava, SAk 1. fokuko «HEA labea eta AOD» partikulen neurketa jarraituak egin beharko ditu.

Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu isuriak neurtzeko sistema jarraituak.

Emisioak modu jarraituan neurtzeko sistema Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sarera konektatu beharko da.

Neurtzeko sistema jarraituaren instalazioa, kalibrazioa, kontrola, mantentze-lanak eta jakinarazpenak, eta ekipamenduen, neurketa-sekzio eta -tokien ezaugarriak ingurumen-arloko eskumenak dituen Sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritako baldintzen araberakoak izan beharko dute.

Instalazioen titularrek izango dute neurtzeko sistema jarraituaren datuak eskuratzeko, tratatzeko eta jakinarazteko ardura, eta neurtzeko kontrol jarraituaren bidez erregistratutako datuak gutxienez 10 urtez gorde beharko dira.

Neurgailu jarraituak dituzten emisio-fokuentzat, neurketarako ekipamenduen erabilgarritasuna, hau da, baliozko datuak lortzeko aldien ehunekoa, gutxienez urteko benetako jardunaren 100eko 90ekoa izango da, Ingurumen Sailburuordetza honek bestelako baimenik ematen ez badu behintzat.

Segidako 15 egunetik gora neurtzeko sistema jarraitua konektatu gabe badago edo gaizki badabil, Ingurumen Lankidetzarako Erakundearen bidez modu jarraituan neurtu behar liratekeen parametroen aldizkako autokontrolak egin beharko dira, 15 eguneko maiztasunaz, gorabehera hasten den egunetik kontatzen hasita, eta neurtzeko sistema jarraituak zuzen jardun arte.

Neurtzeko sistema jarraituaren funtzionamenduari buruzko txosten bat egin eta Sailburuordetza honetara igorri beharko da urtero, ingurumenaren arloko eskumenak esleitu dituen sailak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakoaren arabera.

e) Txostenak.

Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera Ingurumen Sailaren jarraibide teknikoetan ezarritako txosten guztiak igorri beharko dira.

E.1.2- Txostenak eta kontrolen erregistroa.

E.1.1. puntuan eskatutako parametro guztien neurketen txostenak bidali beharko dira. Kanpoko kontrolen txostenetan jarraibide teknikoetan ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko da. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Emisio atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, eta betiere, urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren –atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duenaren eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituenaren– 8. artikuluan ezarritakoari

eta abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren –atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituenaren– III. eranskinean ezarritako edukiari jarraikiz.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.1.3.– Immisio atmosferikoak kontrolatzea.

Jardueratik datozen kutsatzaile atmosferikoen hondoko mailak egiaztatzeko, immisioak kontrolatzeko proposamen bat aurkeztuko da sei hilabeteko epean.

E.2.– Isuritako uren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1 eta 2	Lingoteak hozteko urak eta ur sanitarioak	pH-a SJ DBO_5 OEK Olioak eta koipeak Detergenteak Burdina Amonioa ΔT	Hiru hilean behin	Kanpokoa

b) Kanpo-kontrol bakoitza, dela laginak hartzea, dela ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzean efluenteak ezaugarri baimenduekiko dituen balizko desbiderapenei, horien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

Parametroen analisia «Standard Methods For the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren azken argitalpeneko 11. sailean jasotako metodo normalizatuetako baten bidez egingo da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera egokiena dena hautatuko da. Gaur egun erabiltzen diren metodoak ez bezalako analisi-metodoak ezarri ahal izango dira, kutsatzaileen kontzentrazioa hobeto zehazteko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

Egoki deritzonean, Uraren Euskal Agentziak arazketa-instalazioak ikuskatuko ditu eta efluentea neurtu eta aztertu ahal izango du, isurketen emariek eta parametroek baimendutako mugak gainditzen ez dituztela egiaztatu ahal izateko. Halaber, arazketa-instalazioen ustiapenaren arduradun bat, titulazio egokia duena, izendatzea eskatu ahal izango dio titularrari.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Titularrak urtero aurkeztu beharko du lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak barne hartutako substantzia arriskutsuak dituzten isurketak daudela aitortzen duen agiria. Adierazpen horretan, produkzio-prozesuan manipulatu diren gai guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurian ez hauteman.

E.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

ADIERAZLEA	UNITATEA
Txatar-kontsumoa	T kontsumitutako txatar / t ekoitzitako altzairu
Hondakin arriskutsuak	Kg altzairugintzako hauts / t ekoitzitako altzairu
	Hondakin-balorazioaren %-a
Hondakin ez-arriskutsuak	T zepa beltz / t ekoitzitako altzairu
	T zepa zuri / t ekoitzitako altzairu
	Kg erregogor / t ekoitzitako altzairu
	Kg herdoil-azal / t ekoitzitako altzairu
Isurpenak	T CO_2 / t ekoitzitako altzairu
Energia-kontsumoa	Kwh gas natural / T ekoitzitako altzairu
Ur-kontsumoa	m^3 ur / t ekoitzitako altzairu

Adierazle horiek urtero kalkulatu eta kontrolatuko dira, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko dituzte.

E.4.– Zarataren kontrola.

a) Ebaluazioa indize akustiko hauek kalkulatzeko metodoen bidez egin beharko da: L_d, L_e, L_n ,L_{Aeq},T_i eta $L_{Aeq,60\ segundo}$.

b) Zarata transmititzeko arriskurik handiena dagoen aldean neurketak eginez, L_{Aeq}, T_i indize akustikoaren ebaluazioa egingo da bi urtez behin.

c) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako administrazioko lankidetza-erakunde batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Erakunde horrek

UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberako egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

d) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.5.– Emaitzak kontrolatu eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txosten ezberdinen emaitzak behar bezala erregistraturik gelditu ko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dituzte Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak horretarako prestatu duen IZP Gidaliburuarekin bat etorriz. Webgune honetan dago eskuragarri gidaliburu hori:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-pcc/eu/

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egindako kontrol guztiak, ibilgu eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik (horrelakoen igorpena uren atalean zehaztuta dago), ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean baino ez dute berehala jakinarazi beharko, eta ingurumen-baimen bateratuan ezarritako mugak betetzea lortzeko neurriak ere aurkeztu beharko dituzte horrelakoetan. Kontrola egiten duten urteari dagokion programaren barruan baino ez dituzte igorriko, gainera, urtebete baino periodikotasun handiagoko kontrolak.

Ingurumena zaintzeko programa urtero bidaliko da, martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak, eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik egin ez bada.

E.6.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua izan beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Planta gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez, isurtzeen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

Geldiarazteko eta abiarazteko prozesuetan, mantentze-lanetan eta egoera anomaloetan sortutako hondakinak bigarren atalaren D.6 azpiatalean «Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak» zehaztutakoaren arabera kudeatu beharko dira, baina hondakinok ez dute zertan baimendutako hondakinen zerrendaren barruan egon.

F.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen aplikazio-eremuan (27.100 epigrafea «Burdina, altzairua eta ferroaleaziozko oinarrizko produktuak fabrikatzea») eta lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatu izendatzeko irizpide eta estandarrak ezartzen duen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dagoenez, Acería de Álava, SAk lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari ekin beharko dio jarduera amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Jarduera utzi baino lehen, Acería de Álava, SAk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu ebazpen honen bigarren atalaren D.6 azpiatalean ezarritakoarekin bat etorriz.

F.3.– Jarduera aldi baterako uztea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Isurpenen Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren (urriaren 18ko 815/2013) 13. artikuluan arautu bezala, Acería de Álava, SAk, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz hasi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen edozein isurketa edo emisio saihesteko.

F.4.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, zehaztu egiten dira ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden segurtasun-neurriei dagokienez. Jarioak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (irazgaitzak), biltegiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), egon daitezkeen jarioei antzemateko neurriak edo gehiegi bete direneko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoru gaineko isurpenak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Lehen aipatutako prebentziozko mantentze-lanetarako eskuliburuan atmosferaren kutsadura saihesteko eta zuzentzeko sistemak egoera onean daudela bermatzeko neurriak sartuko dira (arazketa, minimizazioa, eta abar).

d) Era berean, ustiapen-eskuliburu bat eduki behar da, eta han jasoko dira aldizka egindako mantentze-lanak eta antzemandako gertaerak.

e) Olioak, gehigarriak, zepak eta hondakinak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezakeenez, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-itxurako produktuak biltegiratzeko, biltegiratze-siloak izango dira, eta iragazki-sistemen granailatzeko makinen eta esmerilagailuen guneak izango direla bermatuko da.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegiratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

i) Isuriak eta ihesak gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak; eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Tangen hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura edukiko dute. Bertan, lantegiaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isuriak lantegira joatea saihestu beharko da.

k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

l) Depositu edo putzuen hondoetan pilatutako solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko garbiketa egiten den bitartean; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegira eramango dira.

m) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondoan hustubiderik ez duten biltegi iragazgaitzetan biltegiratuko dira.

n) Ez dira inola ere ez jarriko euri-isurketaren ondorioz ibilgu publikoko urak kutsatu ditzaketen guneetan.

o) Baldin eta instalazioetan lokatzen tratamendua badago, horietatik jaregindako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

p) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

q) Instalazioon garbiketen eta mantentze-lanen fakturaren kopia igorriko da urtero.

r) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

s) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

t) Halaber, aldizka eginiko mantentze-lanak eta ikusitako gorabeherak gordeko dira erregistro batean.

u) Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden segurtasun-neurriei dagokienez.

v) Prozesua ustiatzeko eta zuzen funtzionatzen duela zaintzeko eskuliburu bat izango da; bertan, aldizka egindako mantentze- eta kontrol-eragiketak jasoko dira, bai eta ikusitako gertakariak ere, eta enpresa espezializaturen baten laguntza gomendatuko da.

w) Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

x) Gorabehera gertatuz gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean honako alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean-unean zehatz daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Izandako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jardunak, hala egokituz gero.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS DEIAK eta Amurrioko Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gertakariaren iraupena.
- Ustekabeko isurketa gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioztapena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurri horiek eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori eta, horrez gain, horren berri ere eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

y) Aurreko atalean ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ondorengo gertaeraren bat jazo dela:

1.– Ekipoek 24 ordu baino gehiagotan datu fidagarririk ez ematea ekartzen duen edozein matxura edo akatsa gertatzea. Gorabehera gertatu eta gehieneko 24 orduko epean egingo da jakinarazpena, lan egunak direnean, edo lan egunak ez direnean, gorabehera gertatu den egunaren osteko lehen lanegunean jakinaraziko da.

2.– Instalazioaren prozesu jarraitu batean aurrez programatuta egingo diren geldialdiak, aurreikusitako prebentzioko mantentze-lanak barne, gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko dira.

3.– 1. Fokuan, analizagailuan modu jarraituan neurtutako datu balidatu baten kontzentrazioak muga-balioa % 100 gainditzen badu, jakinarazpena gehienez hori gertatu eta 24 orduko epean egingo dute, lanegunetan, edo hori gertatu ondorengo lehen lanegunean, lanegunetatik kanpo.

Edozelan ere, enpresak fax bidez (aplikatu beharreko jarraibide teknikoak bestelako biderik adierazi ezean) jakinarazpena berehala bidaliko dio Ingurumen Sailburuordetzari, datu hauek zehaztuta:

- Gertakari mota.
- Jatorria eta arrazoiak.
- Izandako ondorioak.
- Hartutako euste-neurriak.
- Epeak.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

G) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Acería de Álava, SAk aurreko urtean atmosferara eta uretara isuritako emisioei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorriz.

Informazio hori IKS-eeM sistemaren erakundeetarako bertsioaren bidez egingo da (www.eper-euskadi.net webgunean eskuragarri), hau da, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistemaren bidez.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Ingurumen Deklarazioa agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta

ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999) ezarritakoa betetzen dela.

H) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldez aurretik honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko dute:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/eu/contenidos/informacion/ippc/eu_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Horrez gain, organo honen baimena ere eskatu beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikuluak (industriako isurpenen Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena) aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu.

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretu horren 14.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, betiere Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Era berean, proiektuaren aldaketa kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) 7.1.c eta 7.2.c artikuluan xedatua.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko dute, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.»

«Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, komeni denean mugako emisio-balioak berrikustea, edo beste batzuk ezartzea.

b) Isurketak nabarmen murritz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan eginiko aldaketa handien ondoriozko gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beharrezkoa denean beste teknika batzuk erabiltzea.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian araututakoaren arabera, ingurumen-baimen bateratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela uste duenean, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isurpenei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen bateratua eman dezan, gehienez ere hogei eguneko epean hasteko berrikuste-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen duenean, edo uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.3 artikuluari (ekainaren 11ko 5/2013 Legearen 16. artikuluak aldatuta) jarraikiz ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa denean.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen denean.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen denean.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen denean.

i) Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 25. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorriz egindako azterketa eginda, aldatu beharra dagoela ondorioztatzen denean.

Ingurumen-baimen bateratua berrikusteak ez du kalte-ordainerako eskubiderik emango, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 25.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.»

«Bosgarrena.– Acería de Álava, SAk ebazpen honen xede diren altzairutegian eta zabortegian titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, horrek onar dezan.»

«Seigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako kasu hauetan:

– Acería de Álava, SAren nortasun juridikoa iraungitzea, indarreko arauek aurreikusitako kasuetan.

Horrez gain, ibilgura isurtzeko baimena ezeztatu ahal izango da, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduko 263. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.»

I. ERANSKINA. HONDAKIN ONARGARRIAK

Hondakin onargarriak	
Hondakin mota	***EHZ kodea***
Erregogorra	*16 11 04*
Zepa zuriak	*10 02 02*
Ekorkinak	*17 09 04*
Totxoak hoztu ondorengo lohiak	*10 02 12*
Hainbat hondakin geldo	*10 02 99*

Hirugarrena.– Acería de Álava, SAri Amurrion (Araba) altzairugintzako eta zabortegiko jarduerak egiteko 2008ko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen bateratua gauzatzea, eta 16-I-01-000000000112 instalazio-kodea esleitzea.

Laugarrena.– Acería de Álava, SAk honako hauek aurkeztu beharko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari ebazpen hau jakinarazten denetik hasita hiru hileko epean:

● Azterlan ekonomikoa (ebazpenaren B atala).

● «Tratamendu-putzuko finak» izeneko hondakin arriskutsuaren EHZ kodea eta estimatutako ekoizpena (ebazpenaren D.1.4.1 atala).

● Zabortegia zigilatzeko proiektu eguneratua, egun indarrean dagoen araudiari egokitutakoa (ebazpenaren D.1.7.1 atala).

● Metalezko hondakin ferrosoak biltegiratzeko gehieneko ahalmena (ebazpenaren D.2 atala).

● «Laborategiko kanpaia» izeneko foku ez-sistemarikoaren UTM koordenatuak eta altuera (ebazpenaren D.4.2 atala).

●Txosten teknikoa, hauek egiaztatzeko: isurketa-puntu bakoitzean sortutako emariak, uneko arazketa-sistemen ezaugarri teknikoak, eta fluxuen orain dela gutxiko analitikak. Gainera, hondakin-ur mota bakoitzaren jatorria deskribatu beharko da. Uneko instalazioak hobetzeko ekintzarik aurreikusi bada, horien eta horien gauzatze-epeen berri eman beharko da. Gainera, sortutako industriako uren emaira nabarmen murriztu denez, behar bezala justifikatu beharko da (ebazpenaren D.5.4 atala).

● Fluxuak bateratzeko aukera aztertu beharko da (hartara, batera tratatzeko); esate baterako, ikastaroak emateko eremuan sortzen direnak edo Tubacex-en instalazioetatik gertu sortzen dena. Faseka egin ahalko da bateratzea, isurketa guztiak saneamendu-sare orokor batera konektatzea izanik helburu, ahal denean. Horren harira egindako aurrerapenen berri eman beharko da (ebazpenaren D.5.4 atala).

● Instalazioan sortzen diren euri-urak jariatzeko urei dagokienez, enpresak emandako analitikaren arabera, jabari publiko hidraulikoan eragin dezakeen kutsadura arrastatzen dutela egiaztatu da. Kutsatzaileak arrastatzea prebenitzeko neurriak proposatu beharko dira, eta arazte-sistema bat instalatzea izango balitz aukera bakarra, fluxu hori eta tratamenduaren xehetasuna barne hartu beharko dira isurketaren adierazpenean eta txosten teknikoan, aurreragoko baimenean sartzeko (ebazpenaren D.5.4 atala).

● Hondakin ez-arriskutsu hauen zer kopuru sortzen den: KAMAG gurpil trinkoak, zepa beltzak eta zepa grisak (ebazpenaren D.6.2 atala).

Bosgarrena.– Acería de Álava, SAk honako hauek aurkeztu beharko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari ebazpen hau jakinarazten denetik hasita sei hileko epean:

● Baimendutako kudeatzaileari ematen zaizkion sortutako hondakinen behar bezalako identifikazioa eta sailkapena justifikatu beharko ditu, bereziki hondakin arriskutsua izateari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorriz: Hondakin Zerrenda Europarra, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta 1357/2014/EB Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak hondakinei buruz eman zuten eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituzten 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordezten baita. Hori egiaztatu ondoren, baimen honetan jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena eguneratu egingo dira.

● Ingurumen-organo honek adierazitako fidantza jartzea (ebazpenaren B atala).

● Zabortegia egokitzeko eta zigilatzeko lanen hasiera egiaztatzea (ebazpenaren D.1.7.1 atala).

● Obraren zuzendaritza teknikoaz arduratzen den enpresaren eta geosintetikoen instalazioaren kalitatearen berme-kontrolaz arduratzen den enpresaren berri ematea (ebazpenaren D.1.7.1 atala).

● Substantzia kutsatzaile garrantzitsuei dagokienez, lurzoruak eta lurpeko urek duten hasierako egoera zehazten duen oinarrizko txosten bat, jarduera behin betiko amaitzen denean konparazio kuantitatiboa egin ahal izateko (ebazpenaren D.7 atala).

● Lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatea kontrolatzeko proposamen bat (ebazpenaren D.7 atala).

● Immisio atmosferikoak kontrolatzeko proposamena (ebazpenaren E.1.3 atala).

Seigarrena.– Acería de Álava, SAri eskatzea Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri beharreko ingurumena zaintzeko datorren urteko programan ebazpen honetan jasotako ingurumen-baimen bateratuaren aldaketak gehitzeko.

Zazpigarrena.– Ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen (uztailaren 1eko 16/2002) 30. artikuluan, eta aipatutako uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 31. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Acería de Álava, SAri, Amurrioko Udalari (Araba), ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari. Hartarako, hilabeteko epea dago, jakinarazpenetik aurrera hasita, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen– 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 8a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IOSU MADARIAGA GARAMENDI.